


7.

Biltzar Nagusia


EUSKAL HERRIA GORRIRA
Aldaketa borroka
borroka eragin

Ponentzia

Antolakuntza



Antolakuntza Ponentzia




01616190 0065 619 5390 051619190

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo



Aurkibidea

1. SARRERA	5
2. BALANTZEA EGINEZ, ETORKIZUNeko OINARRIAK FINKATU	7
2.1. Gure ereduaren apustua	
2.2. Proiektu bat, interbentzio anitz	
2.3. Eredu eraginkorra, interbentzioaren gakoa	
3. BI ZUTABE, ERAIKIN BAKARRA	11
3.1. Oinarrizko egiturak	
3.2. Lurralde egitura	
3.3. Sektorializazioa	
3.4. Esparru konfederalak	
3.5. Interbentzio esparru espezifikoak: autonomoak, etorkinak, gaituak, pentsionistak, ekonomia soziala	
4. GURE EREDUAREN EGITURAKETA	25
4.1. Organo konfederalak	
4.2. Lurraldeko egitura	
4.3. Sektorializazioa	
4.4. Batzordeak	
4.5. Idazkaritzak	
4.6. Kabineteak	
4.7. Arloak	



2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

1. Sarrera

1. Lantzen ari garen 7. Biltzar Nagusi hau, aurrekoekin alderatuta, Biltzar berezia izango da, edozein Biltzar Nagusitan ohikoak diren eztabaidetaz gain, honetan berritze prozesuari bide eman behar diogulako.

2. Duela lau urte, 6. Biltzar Nagusian, sindikatuaren erreleboaz hitz egiten hasi ginen. Biltzar Nagusian bertan hartutako zenbait erabaki prozesu horretara zuzenduak izan ziren. Hori dela eta, ardura konfederaletan (Komite Exekutiboan zein Nazio Komitean) militante "gazteak" kokatu genituen, militante "gazte" horiek sindikatu barruko zein kanpoko dinamiketan ibilbidea egiten joan zitezten. Beste era batera esanda, 6. Biltzar Nagusian aurreikusi eta iragarri genuen belaunaldi aldaketa prestatzen hasi ginen.

3. Sindikatuan egindako apustuak bere emaitzak izan ditu. Belaunaldi berri bat sindikatuko esparru guztietan zehar hedatu da (sail sindikaletan, eskualdeetan, sektoreetan...) eta ardurak eta konpromisoak hartu, dinamikak eta interbentzioak garatu, pisua eta erreferentzialtasuna irabazi dute, barruan zein kanpoan.

4. Lau urte hauetan prestatzen aritu garen unea ailegatu da eta sindikatuak 6. Biltzar Nagusian irekitako prozesuari 7. Biltzar Nagusi honetan sakontzea egokitu-tuko zaigu. Aldaketa hau guztia diseinatu eta zuzendu duen zuzendaritzaren erreleboari berari ekingo diogu.

5. Aldaketek bizitzaren esparru guztietan zalantzak eta ezinegonak sortzen dituzte eta sindikatuan ez dugu txertorik hori ekidin ahal izateko. Hurrengo hilabeteetan pertsona, egoera eta funtzionamendu berri edo berrituetara egokitu beharko gara.

6. Horren aurrean militantziari, zuei, konfiantza eta konpromisoa eskatu beharrean gaude, berriro ere. Konfiantza, ardurak hartzen dituen jendeari trantsizio eta ibilbide, ahal den neurrian, "lasaia" egiten laguntzeko; konpromisoa, orain arte proiektuarekiko erakutsi duzuen implikazio eta dedikazioa ezinbestekoak izango zaizkigulako proiektu horri, aurrera begira ere, behar diren energiekin ekiteko.

7. Baina, aurrera egin baino lehen, gogoan hartu nahi dugu sindikatua bere sorreratik osatu, dinamizatu eta zuzendu duen belaunaldi oso bat. Une hauetan ere inoiz baino presenteago ditugu grekin fisikoki ez dauden hainbat bidelagun.

8. Gaur esan dezakegu LAB sindikatu nazionala dela. Baieztapen hau ez da titulu bat, ez da zerbait testimoniale, ez da moda kontua. 2000. urtean, sindikatua Euskal Herriko lurralde guztietara hedatzean, bi helburu edo bi beharri erantzun nahi genien:

9. Alde batetik, arlo sozioekonomikotik Euskal Herriko bazter guztietan sortzen diren beharrei, orokor zein tokikoei, estrategia orokorraz erantzutea. Beste era batera esanda, Euskal Herri osoari alternatiba bat eskaintzea.

Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

10. Beste alde batetik, gure proiektu sozio-politikoaren aldarrikapenen inguruan Euskal Herri osoko langileria aktibatzea.

11. 2000. urtean hasitako bidea aztertzen badugu, argi dago jauzi nabarmenak egin ditugula. Sindikatuak zazpi urte hauetan Euskal Herriko lurralde guztietako arazo sozio-laboralei erantzuteko gaitasuna baduela erakutsi du.

12. Baina azterketa honetan egiten duguna ez ezik, nola egiten dugun ere hartu behar da kontuan. Egia da egun Euskal Herriko bazter guztietara ailegatzeko eta eragiteko ahalmena badugula, baina, hala ere, aurrera eramaten ditugun interbentzio askok ezin izan dute oraindik zatiketa instituzionala gainditu.

13. Inposaturik daukagun errealitate soziopolitikoak sindikatu nazionalaren izaera zailtzen du. Maila nazionaleko planteamenduak hiru errealitate instituzionalaletara egokitu behar ditugu eta, aldi berean, gune instituzional bakoitzetik sortzen diren dinamikei ere erantzun beharrean gaude.

14. Koktel honetan, gune instituzional bakoitzean daukagun errealitate organizatiboak ere eragina badauka: gure planteamenduak, nazionalak zein lurraldekoak, jendarteratzeko orduan; planteamendu horien laketaren erritmoetan; gure indarren aktibazioan, e.a.

15. Denok argi daukagu sindikatu nazionala izateko apustua, baina aipatutako oztopoak gainditzeko, apustu serioak eta perspektibaz egin behar ditugu.

16. Apustu hauen premia areagotzen da, sindikatu barruko aldaketa prozesua behar den bezala bideratzeko eta bizitzen ari garen koiuntura politikoaren aurrean gure interbentzio soziopolitikoak kokatzeko.

17. Errepaso hau amaitzeko, sindikatuak zortzi urte hauetan Ipar Euskal Herrian egindako ibilbideari begirada bat eman nahi diogu.

18. Urte hauek gogorrak izan dira arlo guztietan: gure aukera sindikala zerotik eraiki behar izan dugu, gaur hegemonikoak diren sindikatuen oztopo eta erasoen gainetik eta administrazioaren zein patronalaren ukazioa gaindituz.

19. Hala ere, urte hauetan gure espazioa definitzea lortu dugu. Ipar Euskal Herriko sindikalismoan dinamika berriak sortu ditugu eta beste sindikatuen jarrera aldaketa behartu dugu. Erreferente bihurtu gara: sindikalismo alternatibo, berri eta zuzenagoa ekarri dugu, Ipar Euskal Herriko sindikalismo konbentzional eta zaharkituaren aurrean.

20. Oraindik asko dago egiteke. Sektorializazioa garatzen eta herri biltzarren dinamizazioan sakontzen jarraitu behar dugu. Bi egitura hauek edukiz bete behar ditugu, hemen inon baino gehiago garatu nahi dugun sindikalismo fresko eta zuzenaren oinarria direlako.

21. Sindikatuak maila diskurtsiboan jauzi bat egin behar du. Hurrengo hilabeteetan epe luzerako diseinua garatu behar dugu. Gure interlokuzioa agente politiko, sozial zein ekonomikoekin areagotu eta eredu jakobinoaren aurrean alternatiba sozioekonomikoak eraiki behar ditugu.

22. Militante eta delegatu berrien prestakuntza hobetu eta sindikatua hedatzeko apustu serio eta eraginkorra egin behar dugu. Hurrengo urteetan, jendarte aurrean eta mobilizazioetan lortu dugun legitimitatea eta erreferentzialtasuna areagotu behar ditugu.

23. Erronka horietaz gain, 2008. urtean Proud'hommes hauteskundeak izango ditugu berriro. Gure helburua urte hauetan landutako haziaren uzta bildu eta 2002an lortutako emaitzak gaititzea da.

2. Balantzea eginez, etorkizuneko oinarriak finkatu

24. Gure sindikatua beti karakterizatu da sindikalismo konprometitua egiteagatik. Militantzia eta konpromiso bezalako hitzak ez dira paperetan agertzen diren errentzia solteak, baizik eta gure proiektua osatzen duen binomio banaezina.

25. Garai hauetan militantziaz eta konpromisoaz hitz egitea eredu zaharkituaz hitz egitea dela dirudi. Egungo gizartean neoliberalismoak zabaltzen dituen balioek zerikusi gutxi dute bi hitz hauekin, are gehiago, antagonikoak dira. Baina, hala ere, hasi berria dugun XXI. mende honetan bi kontzeptu horiek, duela 30 urte bezala, beren esanahi osoa daukate.

26. LAB bere militantzian oinarritzen den sindikatua izan da sorreratik, eta horrelaxe izango da aurrerantzean ere; horregatik militantzia ereduak (antolatze ereduak) berebiziko garrantzia du gure proiektuaren garapenerako. Jendarte eta bizi ereduak aldatu egin dira eta honek gudan eta gure antolakuntzan ere eragin handia dauka.

27. Jendarte eredu eta nagusitzen den ideologia antolakuntza joeraren kontrakoak dira. Antolatzea eta borrokatzea lekuz kanpo dagoen ideia zabaltzen ari da eta Euskal Herrian, gainera, kasu askotan zigortu egiten da gure proiektu sozio-politikoaren defentsari lotzen zaionean.

28. Antolatzea oztopatzen duten hainbat elementuk beren horretan diraute: bizitza familiar eta pertsonala bateragarri egiteko benetako neurririk ez da hartzen eta honek antolakuntza egiturak sortzea eta iraunkortzea galarazten du. Zailtasunak areagotzen dira, besteak beste, lan baldintzak direla eta (jardunaldiaren antolaketak ez du denborarik ematen...)

29. Jakina da garrantzi berezia eman diogula sindikatuaren eraberritze orokorrean emakumeen eta belaunaldi berrien inkorporazioari. Emakumeen kasuan, estrategia oso bat diseinatu dugu emakumeen parte hartzea handitzeko; honek emaitzak izan ditu, baina, era berean, agerian utzi du emakumeak aukera berdintasunean militatzeko antolatze eredu bere osotasunean aztertu behar dugula.

30. Jendartearen hainbat esparrutan bezala, gure jarduteko era ere berkokatu eta egokitu behar dugu, eta gure organigramak, gure antolatze ereduak, errealitate hauei erantzun behar die.

31. Dugun erakundeaz harro gaude, baina erakunde bat ez da gauza astraktoa. Erakunde bat, begibistan da, pertsonak osatzen dute. Erakunde baten kapitalik preziatuena bere koadroak dira, bere militanteak. Hauek elikatu eta zaindu behar dira. Bi norabideko bidea egin behar da: ekarpen jario iraunkorra bi norabidetan, erakunde eta pertsona-militanteen artean. Erakunde edo proiektu batekiko atxikimendua era espontaneoan sor daiteke, baina denboran irautea nahi badugu militantiaren atxekimendu hori indartzen duten mekanismoak bilatu behar ditugu.

32. Militantzia sindikalak epe luzerako apustu iraunkorrak behar ditu. Ez da epe zehatz bati lotzen zaion borroka, bizi osorako militantzia dela esan genezake. Hau

Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

dela eta, ezin dugu militan-tzia eredu bakarra eskaini. Liberazioa eskaintza mota bat da, sindikatuan inplikatzeke eta borrokatzeke eredu bat, baina ez da bakarra. Langileak antolatzea da gure helburua eta inplikaziorako bideak zabaldu behar ditugu, bakoitzak bere bizitzarekin eta borrokarako grinarekin bat egiten duen borroka eskaintza egin.

33. Beste alde batetik, gure militantzia sindikatuarekin luzera lotzea nahi badugu, kontuan izan behar dugu norberaren bizitzan ziklo ezberdinak izaten direla eta ziklo bakoitzaren gorabeheretara egokitzten den eredu behar dugula, egoera edo garai zehatz baten erruz militantzia hori ez eteteko.

34. Beraz, aurrera begira erronka inportantea dugu. Datozen lau urteetan sindikatuaren belaunaldi berri baten kokapena egin behar dugu. Egun lekukoa hartu duen belaunaldia izango baita datozen urteetan sindikatuaren norabidea eta lema eramango duena.

35. Prozesu honetan zehar faktore askok izango dute garrantzia, baina gure ustez bi dira determinanteak. Orain arte sindikatua gidatu duen belaunaldiaren jakinduria transmititzea eta prestakuntzak jokatzea beharrezko papera.

36. Lehen esan dugunez, ez gaude bihartik aurrera fase berri bati hasiera ematen. Ez gara zerotik abiatzen, jada ibilbide luze eta garrantzitsua dugu egina. Orain ibilbide honi segida eman eta etorkizunerako apustuak finkatzea tokatzen zaigu.

2.1.-Gure ereduaren apustua

37. Gure ereduaren garapena militantziaren aktibazioan datza eta, horretarako, sektore zein lurraldeko egituretan kokatuak dauden militanteen jardura determinantea da. Sektoreetatik eta, batez ere, Eskualdeko Idazkaritzetatik oinarriak finkatu behar ditugu nahi dugun sindikalismo eta interbentzioa burutu ahal izateko.

38. Sindikatuan definituak eta martxan dugun eredu, lurraldeko egitura sektorialarekin uztartuta, ego-kia dela begi bistan dago. Aurreko Biltzar Nagusian ondo finkatu genituen gure erronkak, sindikalismo erasokorraren garrantziaz aritu ginen eta erronka hauek gauzatu ahal izateko zeintzuk ziren tresna egokienak hausnartu genuen.

39. Diseinua egina dugu, baina ez gara gai izan eredu hau behar den moduan elikatzeko. Arrazoi asko egon daitezke, baina nagusiena lau urte hauetan jorratu dugun antolakuntza eredu datza.

40. Antolakuntza eredu hau definitzeko orduan, defentsiboa izan dela esan ohi dugu. Hala ere, gure ustez benetako arazoa ez da egon ereduaren, baizik eta honen garapenean.

41. Urte hauetan antolakuntzari ez diogu behar bezalako garapenik eman, beste idazkaritzei eman diegun moduan. Ez diogu gorputz organizatibo finko eta dinamikoa eman, eta bere ezintasunak agerian geratu dira.

42. Guk nahi dugun sindikalismo erasokorragorako, ezinbestez antolakuntza erasokorra garatu behar dugu. Baina antolakuntzaz hitz egiten dugunean, ez gara soilik Antolakuntza Idazkaritzaz ari. Arazoa ez da konpontzen Antolakuntza Idazkaritza indartzen soilik.

43. Antolakuntza eredu arin eta zuzena diseinatu eta bultzatu behar dugu eta hau guztia ez dagokio antolakuntza ardurari besterik ez. Ardurak konfederaletan, sektore zein lurraldekoetan gaudenok ere paper protagonista dugu erronka honetan.

44. Ez dugu egituraketa instrumental bat bilatzen, gure delegatu, sail sindikal zein afiliatuekiko hartueman zuzen, arin eta eraginkorra baizik. Sindikatuan gauden koadrook denbora gehiago inbertitu behar dugu gure delegatu eta afiliatuekin kontrastatzeko, sindikatuaren gogoetak konpartitzeko, elikadura ideologikoa emateko, e.a.

45. Horrexetan dago gakoa. Urteak eman ditugu esaten garatu behar dugun sindikalismoa erasokorra izan behar dela, baina eguneroko eginbeharrei erantzuten amaitzen dugu murgilduta.

46. Sektoreetan militatzen duten kideen funtzioak berdefinitu eta birbanatzea ezinbestekoa zaigu. Sektoreetan ditugun gizabaliabideak enpresetara begira jarri behar ditugu. Hauxe izango da hurrengo hilabetetan zuzendaritza berriak, beste batzuen artean, kudeatu beharko duen erronketariko bat.

2.2.-Proiektu bat, interbentzio anitz

47. Azken urte hauetan sindikatuaren garapenean jauzi handia egin dugu, sektorializazioan ez ezik, interbentzio ildo espezifikotan (ingurumena, azpiegiturak, fiskalitatea, politika sozialak, e.a), arlo soziopolitikoan (eskubide zibil eta politikoaren defentsa, gatazkaren konponbidea, presoak), zein lan osasunean, zeharlerroetan eta abarretan ere. Honekin batera, esparru bakoitzeko diskurtsoan zein interbentzioan sindikatuak pisua eta erreferentzialtasuna irabazi du, baina aldi berean dispertsioa eta sakabanaketa areagotu zaizkigu. Nork bere esparruko jardueran gaitasuna irabazi du, baina kasu batzuetan sindikatuaren perspektiba orokorraren kaltetan.

48. Egoera hau sindikatuaren esparru guztietan suertatzen ari da. Segur aski norberak jasan behar duen lan zamak eta ardurari dagozkion erantzukizunek ere zer esan handia izango dute honetan. Hala ere, argi izan behar dugu ez gaudela hemen nork bere borroka sektorial edo espezifikoa irabazteko besterik ez.

49. Borroka sektorial bakoitza estrategia orokor baten barruan dago kokatua, beraz osotasuna elikatzen du. Hemen ez gaude lehia batean non nork berea ahalik eta txukunen gauzatu behar duen, ondokoarena kontuan hartu gabe.

50. Egoera hau bereziki nabaria da konpaktatu behar diren guneeetan, non militante bakoitzak funtzio edo paper bikoitza duen, eta horrela izan ezean, egitura hauetan disfuntzioak eta funtzionamendu okerrak sortzen diren.

2.3.-Eredu eraginkorra interbentzioaren gakoa

51. Orain arte egin ditugun hausnarketek erakusten digute oraindik urruti gaudela guk nahi dugun garapen organizatibotik. Garapen hau sakontzeko orduan, lehen aipatu dugun funtzioen berdefinizioarekin batera, lan metodoen inguruko hausnarketa eta azterketa sakona egin behar dugu.

52. Gure antolaketa eredua ahal den neurrian arindu behar dugu. Bilera gehiegi ditugu eta, erredu bikoitza izanik, gainera, bikoiztu egiten ditugu. Gure eredua askoz zuzenago eta arinagoa izan behar da. Segur aski lan metodoen eta bilera dinamizazioaren inguruan ere oraindik asko hobetu behar dugu.

Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

53. Sindikatuak dituen helburuak lantzeko gure koadro militanteen zuzeneko interbentzioa oinarritzeko eta ezinbestekoa da, eta hori ez da bulegoetatik soilik egiten, praxia behar da, lanpostuetara, enpresetara, sail sindikaletara, herriko dinamiketara joan behar da, buruz buru aritu behar gara. Dinamika hauei zentralitatea, denbora eta planifikazioa eman behar diegu.

54. Azken urteetan diskurtso hau gure hausnarketetan etengabe azaldu da, baina, gero, gure eguneroko jardunean kokatzeko orduan, arazoak izaten ditugu.

55. Bereiztu behar ditugu gure interbentzioa planifikatzeko eta garatzeko oinarritzekoak diren eta ez diren egiturak. Lehendabiziko hauei pisua eta garrantzia eman eta besteak gure beharren arabera erabili behar ditugu. Egitura ezin da militanteen zama bilakatu.

56. Sindikatuan militatzen dugunok jakin badakigu egun darabilgun dinamikarekin oso zaila dela nahi dugun eredia garatzea, beraz, gure ustez, unea ailegatu da eraginkortasunaren inguruko hausnarketa sakona egiteko.

57. Azken ziklo honetan lurralde zein sektoreei azpimarratu izan diegu euren esparruan interbentzio planifikazioa diseinatzeko eta garatzeko beharra, baina, aldi berean, kontzienteak gara, eta azken bi urteetako dinamikek hala erakusten digute, organo zein ardura konfederaletatik sortzen diren dinamikaren garapenak beheko egituren dinamikak gauzatzea zaildu egiten duela.

58. Beraz, hurrengo urteetan sindikatuak ondo baino hobeto diseinatu beharko ditu bere urteroko plan-gintzak. Ondo marraztu behar dugu zein interbentzio, zertarako eta zein tresnarekin burutuko ditugun, dinamika konfederalak osagarriak izan daitezen eta ez oztipoa lurralde eta sektoreetako dinamikak burutzeko orduan.

59. Hau gure apustu nagusietariko bat baldin bada ziklo berri honetan, bitartekoak ere landu beharko ditugu errealitate bihur dadin. Lan metodoak hobetzearekin batera, egituraren arintasuna ere bilatu behar dugu, sektore zein lurralde arloetan.

60. Balantze hau ezin dugu amaitu gure liberatu multzoaren inguruko hausnarketa egin gabe. Sindikatua urte hauetan etengabe hazi da eta, egituretan dauden militanteetatik gain, lan administratibotik kokatuta daudenak ere gero eta gehiago dira.

61. Gaur egun militante hauekin dauzkagun hutsune eta disfuntzioak gainditu behar ditugu. Horretarako, sindikatuak bitartekoak ipini behar ditu lagun hauek gure eguneroko dinamiketan integratzeko, sindikatuaren bizi, eztabaida, dinamika zein interbentzioetako parte senti daitezen; une batzuetan berez ditugun egiturak baliatu beharko ditugu eta beste kasu batzuetan egoera berezietan erantzun bereziak eman beharko dizkiogu.

62. Sindikatuak urteetan onartu eta erabili duen eredia lurralde zein sektoreetako egituretan oinarritzen da. Urteetako egoera zein eskarmentuaren ondorioz, lurraldeko egiturak pisu eta protagonismo handiagoa hartu du egituraketa konfederallean, eta sektoreetako dinamikak gehiago bideratu dira interbentzio espezifikotara begira.

63. Bi egitura hauek konpartitzen dituzten guneen bitartez (sail sindikalen, eskualdeko sektoreko komiteen eta herri biltzarren bitartez, alegia), sindikatuaren diskurtsoa praxi bilakatzen da. Beraz, gune hauen dimentsionamendu, proiektzio, garapen zein funtzionamendu egokia determinanteak dira.

3. Bi zutabe, eraikin bakarra

3.1.-Oinarrizko egiturak

3.1.1.-Herri Biltzarra

64. Urteetan hausnartu dugu herri biltzarrak sindikatuaren organigraman duen garrantziaz. Dagoeneko dena dago esana, baina urte hauetan guztietan zailtasun objektiboak izan ditugu garatzeko orduan.

65. Izan ditugun gabeziak faktore ezberdinen ondorioz izan dira. Hemen ez ditugu denak zerrendatuko, baina denok gara jakitun teoriatik praxira pasatzeko orduan zenbait gunetan ez dugula asmatu. Akaso ez dugu jakin gune bakoitzaren tokian tokiko berezitasunak aurreikusten eta, horren arabera, malguak izaten.

66. Honekin batera, herrietako dinamikak exijitzen duen militantzia eredua eta sindikatuko beste esparruetan gauzatzen duguna zeharo desberdinak dira. Honek zailtasun objektiboak sortzen ditu herri biltzarrak garatzeko zein dinamizatzeke orduan.

67. Hausnarketa honetan beste errealitate bat izan behar dugu kontuan. Herri biltzarra da sindikatuak interbentzio sozio-ekonomikoa herri zein zonalde mailan garatzeko duen egitura. Beraz, herrietako dinamika zein jarduera sozio-ekonomiko guztiak egitura honen inguruan ardaztu beharko lirateke.

68. Zoritxarrez, egungo errealitatea oso bestelakoa da. Interbentzio sozio-ekonomikoa gauzatzeko orduan gune berezituak sortzen dira gai espezifikoan arabera, militantziaren nahasmenerako.

69. Beraz, gune berezitu hauetan kokatuak dauden militanteek hausnarketa serioa egin beharko lukete herri biltzarrak jorratu beharreko paperaz eta beraien protagonismoaz herri biltzarrean bertan.

70. Arazoak arazo, herri biltzarraren potentzialitateak bere horretan dirau. Begi bistan dago herri biltzarrak kontsolidatuak eta martxan dauden herrietan sindikatuaren osasuna bestelakoa dela.

71. Beraz, garrantzi handiko gunea izanda, ondo kokatzeko, inplementatzeko eta bere funtzioak finkatzeko plangintza burutzea beharrezkoa zaigu. Antolakuntza Batzordeak egin beharko du plangintza honen diseinua, garapena eta jarraipena.

3.1.2.-Sail Sindikala

72. Herri biltzarrekin batera, sindikatuak dituen oinarrizko egiturak dira sail sindikalak. Lan mundura zuzenduta dugun interbentzio egitararik zuzenena.

73. Sail sindikalaren funtzionamendu eta interbentzio egokiena da bide bakarra sindikatuaren hausnarketa eta planteamenduak langileei era zuzen eta eraginkorrean helarazteko.

Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

74. Azken hauteskunde sindikaletako prozesuak enpresa askotan sail sindikal berriak sortzeko eta baditugunak indartzeko aukera eman digu. Beraz, datozen urteetan esparru hau bultzatzen eta indartzen ordu asko eman beharko ditugu.

75. Sektoreetako plangintzek, eskualdeetako egiturarekin batera, serio hartu behar dute kontuan egitura honen garapena. Egitura biek komunikazio zuzen eta iraunkorra burutu behar dute euren esparruetan dauden sail sindikalekin.

76. Honekin batera, sail sindikaleko delegatuaren papera azpimarratu beharra dugu. Urteetan figura honi ez diogu behar besteko arreta jarri. Askotan bere funtzioak, komiteko delegatuen berdinak edo hauen jarraipena izan dira.

77. Hala ere, ardura hau pieza klabea da, bera delako sail sindikalaren eta sektore zein eskualdearen arteko lotura zuzena, eta bera delako enpresa batean sindikatuak duen ordezkartzaren arduraduna, dinamizatzailea, alegia.

78. Arlo industrialia sindikatuaren oinarria izanik, sektore honetako ereduak markatu digu askotan funtzionatzeko eta egituratzeko modua. Hala ere, lan munduko aldaketek enpresaren ohiko definizioa guttiz eraldatu dute.

79. Enpresa beraren lan zentroen sakabanaketa, lan zentro berean hainbat enpresa ezberdin aritzea (azpikontratak, ekiparazio prozesuak edo pribatizazioak),... lan munduaren mapa erabat dinamiko bilakatu zaigu eta sindikatua egokitu eta egoera haiei erantzun beharrean dago.

80. Horretarako, sindikatua malgua izan behar da gure interbentzioa gauzatzeko orduan, eredu zurrunetatik aldendu eta enpresetan sortzen ari diren antolatzeke era berrietara moldatu behar gara.

3.2.-Lurralde egitura

3.2.1.-Eskualdeetako sektore komiteak

81. Egitura honi aurreko bi guneen funtzionamendua bermatzeko erabateko protagonismoa eta paper determinantea dagokio, eskualdeko idazkaritzarekin batera.

82. Beraz, sail sindikal zein herri biltzarren funtzionamendu egokia lortzeko egitura hau indartu beharra daukagu.

83. Ezinezkoa da sindikalismo erasokorrik garatzea sail sindikalak eta herri biltzarrak beste dimentsio batean kokatzen ez baditugu, eta hori gauzatzeko sektoreek, eskualdeen laguntzarekin, papera eta protagonismo handiagoa izan behar dute sindikatuaren organigraman eta funtzionamenduan.

84. Aurreko Biltzar Nagusian hausnartu genuen sektoreek izan beharreko protagonismo horretaz, baina, bigarren atalean esan dugunez, gogoeta honi ez diogu segidarik eman.

85. Gure diskurtsoa praxira eramanez nahi badugu, sektoreen garapenean ezinbestez beste jauzi bat egin behar dugu. Honek esan nahi du eskualdeetako sektoreetako egiturak eraiki eta iraunkortu behar ditugula.

86. Ezinbestez eskualdeetan kokatuak ditugun sektoreak garatu behar ditugu. Eskualdeko sektore arduradunaren inguruan lan taldea osatu behar dugu, sektorearen arazoak jarraipena egiteko, sektorea egituratzeko, delegatu zein afiliatuekin hartu-eman zuzenak izateko, e.a. Honela, talde honek enprese-

tako arazoan jarraipena zuzenean egingo du, gure interbentzio ildoak afiliazioarekin naturaltasunez konpartituko du, eskualdeko idazkaritza elikatuko du...

87. Diskurtso hau, gaur egun aurrera ateratzen ditugun dinamikekin, praktikara eramatea oso zaila egiten zaigu; horregatik, lehen esaten genuenez, sektoreetan kokatuak dauden kideak enpresetara begira jarri nahi baditugu, beren funtzioen definizio eta banaketa berria egin behar dugu.

88. Eguneroko dinamikak sektoreetan zein eskualdeetan gero eta itomen sentsazio handiago sortzen ari da eta honek militanteen frustrazioa eragin eta euren interbentzioa mutilatu egiten du. Hori dela eta, sindikatuan azken bi urte hauetan funtzionamendu eredu berriak martxan jartzen ari gara eskualdeetako sektore arduradunak egoera hauetatik aldentzeko eta nahi dugun eredu erasokorrean kokatu ahal izateko.

89. Hurrengo hilabeteetan, Antolakuntza Batzordeak, jada ditugun esperientzien balorazioa egin beharko du, horren segidan diseinua lantzeko.

3.2.2.-Eskualdeetako idazkaritzak

90. Aurreko Biltzar Nagusian, egitura honek gure organigraman jokatzeko duen papera ikusita, apustu serioa egin genuen behar den bezala garatzeko. Orduan egin genuen gogoetak egin bizirik dirau.

91. Egitura honen garrantzia denon begi bistan dago. Urte hauetan adibide, egoera eta pasadizo asko izan dira marko honen inguruan, baina argi dagoena da sindikatuaren konpaktazioa egitura honetan sortzen dela, bertan elkartzen baitira sindikatuaren dinamika guztiak: konfederalak, sektorialak, herrietakoak, zehar-lerrokoak, e.a. Edozein dinamika burutzeko, dinamika hori eskualdeetan gorpuzten da bere alde ezberdinetan (sektoriala, zeharkakoa, politikoa, azpiegituretakoa...).

92. Bigarren atalean sindikatuan gertatzen den konpartimentazioaren inguruko gogoeta egin dugu. Egoera honen isla argia egitura honetan ikusten dugu, besteak beste. Eskualdeko idazkaritzen garapenean ez dugu lortu taldea trinkotzea, baizik eta lorturarik gabeko ardurak bertan pilotzea.

93. Egun egitura hau, kasu gehienetan, pertsona baten inguruan, eskualdeko idazkaria hain zuzen, biratzen da. Berari, egitura hau dinamizatzeaz gain, sortzen diren disfuntzioak konpaktatzea dagokio.

94. Kasu gehienetan ez dugu lortu lan taldea osatzea, ez dugu lortu bertan dauden kideek beren burua eta interbentzioa eskualdeko perspektiba integral batean kokatzea.

95. Egoera hau gainditzeko, egitura bera indartu behar dugu: dinamismo eta protagonismo gehiago eman eta bere dinamika inplementatu behar dugu.

96. Horretarako, eskualdeetako idazkaritzek, kasu askotan Nazio Komite konfederalarekiko menpekotasuna gainditu behar dute. Honek ez du esan nahi loturarik ez duenik izan behar (aitzitik, lotura hori sendotu beharra dago), baina bai dinamika propioak gehiago landu behar dituela deritzogu.

Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

119. Bata makroan aritzeko, hau da, sektore bezala aritzeko: hausnarketak, ildoak, harremanak, e.a.
120. Bestea mikrorra zuzendua, sektoreko interbentzio esparru zuzenetatik egunero sortzen zaizkigun mila dinamikei (gatazka, negoziazio kolektibo, lan osasun, eta abarrei), erantzuteko.
121. Denok ikusi dugu gure eguneroko jardueran bigarrenak suposatzen duena, hartzen duen zentralitatea eta protagonismoa. Hori dela eta, 2000. urtetik hona sindikatuaren apustua nagusiki hau gainditzera bideratu da. Hala ere, oraindik hutsuneak ditugu, beraz, datozen hilabeteetan, urteetan, ildo horretan sakontzen jarraitu beharko dugu.
122. Marraztu dugun egoera ez da berria eta jada 6. Biltzar Nagusian, egoera gainditzeko bidean, sektorializazioaren diseinua planteatu genuen. Honela, sektoreetako zuzendaritzan bi organo bereiztu genituen: sektoreetako nazio komiteak eta exekutiboak, hain zuzen.
123. Lau urte hauetako lanketak erakusten digu plano teorikoan egindako apustua zuzena eta egokia izateaz gain, beharrezkoa ere badela.
124. Urte hauetan sektoreetan, kasu gehienetan, ez dugu sektoreetako arduradun nazionalen bakardadea gainditzea lortu, ez dugu talderik osatzea lortu, sektorearen kezka nagusiak interbentzio integrari begira zuzendu ahal izateko: ekintza sindikala, negoziazio kolektiboa, politika sektorialak, lan osasuna, planak, egituraketa, hedapena, eta abar.
125. Beste era batera esanda, exekutibo sektorialak ez ditugu finkatzea lortu, salbuespenak salbu. Arrazoi ezberdinak daude, baina bat eta nagusia, lehen esan dugunez, sektorearen garapena bera da.
126. Aitzitik, nazio komite sektorialak, sektorearen egoera eta errealitatearen arabera izan dira konfiguratuak eta kasu gehienetan organo iraunkor eta sektorearen erreferente bilakatu da.
127. Askotan, exekutibo sektorialaren ezean, organo hau saiatu da exekutiboaren funtzioak bereganatzen, baina errealitatean ez du lortu exekutiboak utzitako espazioa estaltzea eta berriro ere pisu gehiena sektoreetako arduradun nazionalengan erori da.
128. Argi dugu egoera hau gainditzea ez dela sektoreen erantzukizuna, sindikatu osoarena baizik, eta, era batean edo bestean, honetarako neurri organizatiboetaz hitz egin behar dugula.
129. 6. Biltzar Nagusian, sektorializazioan jauzi bat egin nahi izan genuen eta horretarako Exekutibo Konfederalaren sektorearteko bi arduren eginbeharrak sektoreen dinamikei lotu genizkien.
130. Lau urte hauetan ikusi dugu egin genuen apustua zuzena eta egokia zela baina motz gelditu gine-la. Gaur egungo diseinuan sektorearteko idazkariak burutu dituzten funtzioak egitura sektorialak laguntzeko izan dira, interbentzio sindikala ikuspuntu konfederalaz jorratzeko xedez. Era berean, sektoreen eta Komite Exekutiboaren arteko lotura izan dira.
131. Hori dela eta, 6. Biltzar Nagusian onartutako planteamenduari jarraipena edo ibilbide luzeagoa ematea beharrezkoa ikusten dugu.
132. Honela, lehen esaten genuenez, sektoreetako zuzendaritza guneak indartu behar ditugu, Exekutibo Konfederalen ardurak dinamika sektorialetan buru belarri kokaturik.
133. Horretarako, hiru federazio sortzea proposatzen dugu eta Exekutiboko hiru kide hiru federazioetako idazkariak izango lirateke.
- Industria Federazioa.

- Zerbitzu Pribatuetako Federazioa.
- Zerbitzu Publikoetako Federazioa.

134. Federazio hauetan gaur egun ditugun sektoreak egongo lirateke kokatuta.

- Industria Federazioan, Metalgintza eta Eraikuntza-Kimika sektoreak.
- Zerbitzu Pribatuetako Federazioan, Zerbitzu Pribatuak eta Garraio-Itsasoa sektoreak.
- Zerbitzu Publikoetako Federazioan, Administrazioa, Irakaskuntza, Osasungintza eta Sozio-komunitarioa.

135. Diseinu hau federazio bakoitzaren komitearekin osatzen da. bertan gutxienez hartuko dute parte, federazioko idazkariak gain, federazioko interbentziarako arduraduna eta sektoreetako arduradun nazionalak. Federazio edo sektoreen berezitasunen arabera, osaketa hau gehiago osa liteke.

136. Gainontzeko egituraketa sektorialaren diseinua 6. Biltzar Nagusian onartu genuena izango litzateke. Diseinu honetan sektoreetako exekutibo zein sektoreetako nazio komiteen garrantzia eta apustua eguneratzen dugu, gune hauen pape-
ra, federazioko komitearekin batera, determinantea delako egiten ditugun apustuak gauzatzeko.

137. Baina egoera ez da horrela soilik gainditzen. Hiru hanka dira beharrezkoak: lehenik eta behin, askotan esaten dugu paperak dena onartzen duela, baina diseinurik egokienak ere kale egin dezake ez badago gauzatu duten pertso-
nen apustu sendoa; bestetik, jadanik esan dugunez, sektoreetako arduradunen funtzioak birdefinitu behar ditugu; eta azkenik, militantziaren aktibazioak ere paper determinantea dauka.

138. Hausnarketa honetan ezin dugu baloratu gabe utzi duela lau urte Administrazio-Osasungintza sektoreen batuketarekin egin genuen apustua. Egin genuen planteamendua Administrazio Publikoetako sektorearen lanketaren nor-
abidean kokatu genuen eta argi eta garbi esan behar dugu, salbuespen batzuk kenduta, egindako apustua ez dela gauzatu. Gure ustez, bi arrazoi izan dira fun-
tsezkoak, lehenengoa bi sektoreen barruko egoera eta bigarrena erabakia bera bi sektore hauetan nola hausnartu zen.

139. Biltzar Nagusi honetan sektorializazioaren inguruan hartzen dugun erabakia edozein izanda, sindikatuak azterketa serioa egin behar du bi sektore hauen ego-
eraz. Horretarako, positibotzat jotzen dugu abenduaren 14ko jardunaldian egin-
dako hausnarketa, baina irekitako bide horri hurrengo hilabetetan jarraipena eman behar zaio.

140. Diseinu sektorialaren inguruan egiten ari garen gogoeta amaitzeko, ezin-
bestez azpisektore sozio-komunitarioaren egoerari erreparatu behar diogu.

141. Duela lau urte azpisektore honen apustua egin genuen zegoeneko existitzen zen errealitateari erantzuteko. Hasieran dena definitzeke, egite-
ke, zegoen, lan munduan ere sektore hau definitu edo egituratu gabe zegoelako.

142. Egindako apustua ez zen nahikoa izan. Errealitateak gainditu egin gaitu. Jendartearen bilakaerarekin batera estamentu politiko desberdinek (autonomiko,

Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

97. Argi dugu gune hau "eskualdeko nazio komite" bilakatu behar dela. Sindikatuak konfederalki ezartzen dituen interbentzio ildoak, eskualdeko errealitateari egokitu eta bere eremura nola eraman azertu behar du.

98. Planteamendu hau gutxieneko baldintzetan jorratu ahal izateko, derrigorrez eskualdeetako sektore arduradunen funtzioetan ponentzia honetan behin eta berriro azpimarratzen ari garen eman beharreko jauzia eman behar dugu.

99. Eskualdeko Idazkaritzako egitura bakoitzak bere plangintza diseinatu behar du. Plangintza horretan helburuak eta lehentasunak finkatu eta helburu horiek gauzatu ahal izateko zeintzuk tresnak ditugun zehaztu behar dira.

100. Baina hor ez dira erronka guztiak amaitzen. Eskualdean lortu beharreko konpaktaziori begira, eskualdeko plangintza orokorra osatu behar da, arlo zein sektore guztien arteko plangintzaren osaketa. Argi utzi behar da eskualdeko plangintza ezin dela izan arlo edo sektoreen plangintzen batuketa soil.

101. Dinamika berpizteko plangintzak duen garrantzia determinantea da. Egia da egungo dinamikekin zaila dela uztartzea egoeren arabera sortzen diren iniziatiba konfederalak eta oinarritzko egituretako plangintzak, baina eskualdeko idazkaritzen interbentzioan derrigorrez ataka eta erronka batzuk kokatu behar ditugu eta horiek egituraren dauden kide guztiak onartu, konpartitu eta barneratu behar dituzte.

102. Honi azken hilabeteetan egiten ari garen beste gogoeta bat gehitu behar diogu: jarduera edo interbentzioak mailakatu beharra. Hau da, egun kasu gehienetan ez ditugu gure dinamikak sailkatzen eta, hortaz, denak ezinbestekoak eta lehentasunezkoak direla ematen du.

103. Sailkatze honekin batera, interbentzioa burutu behar dugunean, bertan parte hartu behar duten egiturak eta diseinu mobilizatzaileak definitu behar ditugu.

104. Horrela bakarrik ordena ditzakegu gure interbentzioak, aukera ematen lurraldeko zein sektoreetako egiturei beren dinamika propioak lantzeko.

105. Gure ereduak eskualde tipo bati erantzuten dio, baina eskualdeen artean berezitasun eta desberdintasunak daude eta honek eraman behar gaitu eredu hori tokian tokiko errealitateen arabera egokitzera. Honela, hiriburuetako eskualdeko idazkaritzen papera sakon aztertu behar dugu, hiriburuetako dinamikak, sindikatuaren barrukoak zein kanpokoak, dedikazio eta atentzio berezia eskatzen baitute.

106. Eskualdeko Idazkaritza osatzen dugun militanteok ezin dugu gune hau ulertu deskargua eta laguntza eskatzeko toki bat bailitzan. Bakoitza bere arduratik osotasunaren zati bat da eta, beraz, osotasunari ekarpena egin behar dio. Dagozkion iniziatibak garatu behar ditu, baina era berean, beste esparruetan sortzen diren hausnarketa, interbentzio, dinamika eta helburuetan ere hartu behar du parte.

107. Beraz, hurrengo urteetako erronka militanteak perspektiba orokorraz aritza izango da, beren egituren hausnarketa, interbentzio eta helburuetan integratuak egotea. Horixe izango da bidea orain gertatzen den konpartimentazioa gainditzeko.

3.2.3.-Eskualdeetako kontseiluak

108. Biltzar Nagusian sortu genuen egitura hau sindikalismo erasokor eta zuzenari begira dago pentsatuta. Bertan eskualdeko interbentzio esparruetako militanteak (herri biltzar, sektoreetako...) kokatzen ditugu.

109. Egitura honen garapenean egoera oso ezberdinak suertatu dira: batzuetan ez da ulertu organo honekin bilatzen genuena, bere funtzioen inguruan zalantza asko sortu dira, delegatuen batzarrarekin nahastu da, enpresa txikietako delegatuekiko harremanak galtzen ote ziren, e.a.

110. Organo honek potentzialitate handia du behar den bezala dimentsionatuz gero. Gure sindikalismo ereduaren paper inportantea izateaz gain, organo hau oso baliagarria da eskualdeetako konpaktaziorako: eskualdeko militanteak bertan kokatuta daudenez gero, egitura honetako hausnarketek eta dinamikek gabezia hau gainditzeko balio beharko lukete.

111. Hori bai, gune hau ezin dugu artikulatu, osatu behar duten esparruak (batez ere sektoreak eta herri biltzarrak) garatuak ez badaude. Beraz, egitura hauen garapenean dago eskualdeko kontseiluen funtzionamenduaren berma. Beste hitz batzuetan, antolakuntzako gabeziek zuzen eragiten diote organo honi eta, hauek zuzentzen ez ditugun bitartean, eskualdeetan, borondate onaz, beste bitarteko batzuk (delegatuen batzarrak) bilatzen eta aplikatzen jarraituko dute egoera hau gainditzeko.

112. Beste alde batetik, urte hauetan egitura honetan eta eskualdeko idazkaritzetan zenbait eztabaida bikoizten direla ikusi dugu. Arazoa osaketan eta garapenean dago, beraz, organo bi hauek funtzioak ondo bereiztu beharko ditugu.

3.3.-Sektorializazioa

113. Egindako diseinu sektorialari erreparaturik, sindikatuan errealitateak oso desberdinak izan arren, urte hauetan egindako lanketa antzua ez dela izan deritzogu, baina oraindik gure garapen sektorialak dituen gabeziak agerikoak dira behar dugun jauzia egin ahal izateko.

114. Sindikatuan lurraldeko diseinua oso ondo definitua eta finkatua dugu. Sektorializazioan, berriz, 2000. urteko Biltzar Nagusitik ereduaren egokipenaren bila gabiltza. Urte hauetan eredu eta proposamen desberdinak jorratu ditugu zorte gehiago edo gutxiagorekin.

115. 2000. urtean sektorializazioari bultzada eman nahi izan genion eta horretarako lurralde zein sektoreetako egiturak parez pare kokatu genituen. 2004. urtean balantza lurraldeko egituraren alde indartu zen eta sektoreen eginbeharra ekintza sindikalaren inguruan geratu zen.

116. Hau dela eta, azken urteetan sektoreaz hitz egitea ekintza sindikalaz, negoziazio kolektiboaz edo politika sektorialaz hitz egitearen sinonimoa izan da eta sektoreen garapena antolakuntzaren ardurari edo eskualdetako idazkariei egokitu zaien kontua bihurtu da.

117. Sektoreetako interbentzio esparruak aztertzean, bi errealitate oso ezberdinak aurkitzen ditugu: bata sektoreko interbentzio integralarekin lotua eta bestea eskualdeko dinamikekin uztartzen dena.

118. Urte hauetako esperientziak erakutsi digu, errealitate hauek osagarriak izan arren, bere lanketarako bi marko organizatibo berezituak behar direla.

foral zein lokalak), neurri andan zabala martxan jarri dute jendartean sortzen diren beharrei erantzuteko. Neurri horiek, babes sozialaren arloan bete-betean sartzen diren zerbitzu sozio-komunitarioen kudeaketa neoliberalari erantzuten diote.

143. Neurri hauek isla zuzena izaten ari dira lan munduaren egituraketan eta, horren segidan, langilerian. Hori dela eta, sindikatuak duela lau urte egin zuen apustua eguneratu beharrean gaude, ezinbestez egokitu behar gara sortzen ari den errealitate berrira.

144. Esan dugun moduan, sektore berri baten aurrean gaude, sektore honek duen izaera edo berezitasunengatik behin eta berriro salatzen ditugun errealitateak (prekarietatea, azpikontratazioa, harreman laboralen desregularizazioa, e.a.), bortizki jarri dira martxan, sektorearen barruko noraezak eta indefinizioak aprobetxaturik.

145. Sektore honek sindikatuen interbentziorako irekitzen dituen aukerez gain, sektore berria izanik, sindikatuen ordezkaritza lantzeko aukera ezin hobeak ere agertzen zaizkigu.

146. Kontuan izanda, lehen esan dugunez, egindako apustua ez zela nahikoa izan, azpisektore sozio-komunitarioari sektore konfigurazioa ematea proposatzen dugu.

147. Hortaz, sektorializazio proposamena honakoa izango litzateke:

- Metalgintza
- Eraikuntza-Kimika
- Zerbitzu Pribatuak
- Garraio-Itsasoa
- Irakaskuntza
- Administrazioa
- Osasungintza
- Sozio-komunitarioa

3.4.-Esparru konfederala

3.4.1.-Zuzendaritza konfederala

148. Sindikatuko zuzendaritzak edo hobeto esanda, sindikatuko organo konfederalek ibilbide luzea egin dute sindikatuaren jardunean. Zuzendaritza organo hauen funtzio eta zereginak ibilbide luzea egin dute eta aspaldidanik dauzkagu ondo definiturik.

149. Biltzar Nagusi desberdinetan organo hauek izan dituzten aldaketak ez dira kontzeptualak izan, une bakoitzean sindikatuak markatzen zituen ildo estrategikoei lotuak baizik.

150. Beraz, ihes egin nahi dugu sindikatuko organo bakoitzak izan beharreko arduren kopuruaz eta gehiago sakondu datozen urteetan gune hauek burutu beharreko erronkaz eta zelako tresnen bitartez landuko ditugun.

151. Ponentziaren hasierako gogoetan sindikatu nazionala izateak dakarrenaren inguruko azterketa egin dugu, eta zatiketa administratiboak sortzen dituen desorekek interbentzio integrala egiteko zuzendaritzatik nola eragiten diguten ere mintzatu gara.

152. Arazo hau gainditzeko ezinbestekoa da sindikatuan egunerokotasunean zuzendaritza markatzen dituzten organoen jarduera perspektiba nazionalaz egitea.

153. 2000. urtean sindikatu nazional bilakatu ginenean, jauzi organizatibo handia egin genuen, baina,

aldi berean, sindikatuko egiturak (zuzendaritzakoak barne) ez genituen egokitu izaera nazionalak sor-tzen dizkigun beharretara.

154. Honek urteetan eragin izan dizkigun hutsuneek bere horretan diraute. Zenbait egoera era boluntarista batean kudeatu ditugu, baina argi dugu horrela ezin dugula jarraitu.

155. Sektoreetatik hasita, Nazio Komiteraino, sindikatuko arduradunek gaitasuna izan beharko lukete Euskal Herriko edozein lurraldetako egoerak jorratzeko. Honetarako, trantsizio diseinua egin beharko genuke sindikatuan, hausnarketa eta interbentzioak errealitate guztietara egokitu ahal izateko.

156. Baina esatetik egitera alde handia dago eta sindikatua ezin da egon etorki-zunean etorriko diren neurri zuzentzaileen zain. Sindikatuak jada finkatuak dituen ildoak landu eta egunero sortzen diren beharrei erantzun behar die. Horregatik, trantsizio hori definitua eta martxan ez dagoen bitartean, gai izan behar gara antzemandako gabeziei aurre egiteko.

157. Egoera hau, normala denez, ez da berdin bizitzen Nazio Biltzarrean, Nazio Komitean edo Komite Exekutiboan, organo bakoitzak dituen funtzioen bereizketa eta jokatzeko dituen paper desberdinen ondorioz.

158. Nazio Biltzarraren ibilbidea positiboa izan da eta izaten ari da. Maiztasun eta funtzionamenduari dagokionez finkatu egin da eta sindikatuaren ildoak zein jar-duerak ezartzeko orduan gaitasuna erakusten du.

159. Nazio Komitean ikuspegi orokor hori bermatua dago, erabakiak hartzeko garaian sindikatuan ematen diren errealitate guztiak bertan integratuak daudelako. Bere funtzionamendua hobetzeko, organo honen eta egun ditugun Batzordeen arteko komunikazio eta dinamikak hobeto uztartu behar ditugu.

160. Komite Exekutiboak gainontzeko organo konfederalak hartzen dituzten erabakiak kudeatzen ditu. Kudeaketa horretan ezinbestekoa da perspektiba eta jar-duera integrala izatea eta horretan datza une honetan zuzendaritza organoetan daukagun arazorik larriena. Gai gara interbentzio ildo orokorrak markatzeko, baina arazoak sortzen zaizkigu hauen kudeaketan.

161. Hurrengo hilabeteetan, zuzendaritzako etapa berrian, iraganean izan ditugun gabeziak kontuan hartu eta, lehen esan dugun eran, neurri zuzentzaileak jarri behar ditugu. Horregatik, behin-behineko fase batean eta ardura konfederalen interbentzioa perspektiba nazionalen izan dadin errazteko, Komite Exekutiboa bi bokalez indartzea helburua dugu.

162. Baina hau ez da era bakarra egungo egoera gaintzeko. Beste alde batetik, Prestakuntza Idazkaritzak Nazio Komitearekin batera diseinatu beharreko presta-kuntza plangintzan arreta berezia jarri beharko dio zuzendaritzako egituretan dauden militanteen formazioari.

163. Bestetik, sindikatuko zuzendaritzaren konpaktazioa indartu behar da, horre-tarako ohiko dinamikaz gain, komunikazio sistema arinagoak landu behar ditu-gu, zuzendaritza kideek sindikatuaren jarduerak kontrastatzeko aukera iraunkor eta eraginkorra izan dezaten.

Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

164. Ildo beretik, zuzendaritza eta gainontzeko kideen arteko komunikazioa ere arintzeko eta eragin-kortzeko bitartekoak ipini behar ditu.

3.4.2.-Prestakuntza

165. Gogoan hartu dugu gure eredurako militantziak duen garrantzia eta jokatzeko duen paper determinantea, baina aktibo hori zaindu eta elikatu behar da.

166. Hau era desberdinetan egin daiteke, baina, hauen artean prestakuntza da etorkizunerako funtsezkoa. Sindikatuak militanteengan inbertitu behar du, egun ditugun liberatu zein delegatu berriak sindikatuaren geroko oinarri eta zutabe nagusiak dira eta. Beraz, trantsizio fase honetan apustu pertsonalak egiteaz gain, apustu kolektiboak ere landu behar dira.

167. Sindikatuak erronka inportante bati ekin behar dio, belaunaldi berrien finkapenari, hain zuzen ere. Egun sindikatuaren sartu den belaunaldi berria da etorkizunean sindikatuaren estrategia eta jarduerara aurrera eramango duena.

168. Baina gauzak ezin dira joan-etorriaren arabera landu, bideratu, planifikatu, aurreikusi behar dira. Planteamendu honetan prestakuntzak duen papera denon begi bistan dago.

169. Sindikatuaren belaunaldi berrien presentzia areagotzen ari da, eta militante berri hauek interbentzio toki askotan dira sindikatuaren aurpegia eta ahotsa. Hau horrela esanda, positibotzat jo dezakegu, sindikatuak belaunaldi berri baten integrazioa lortu duelako, baina belaunaldi honek bere eguneroko interbentzioan gabezi batzuekin aurkitzen ditu.

170. Sindikatuaren militatzen zenbait urte eman dutenek belaunaldi berriek ez duten ibilbidea egin dute. Guretzat jarduerara edo jarrera politiko eta sindikal batzuk ohikoak eta arruntak dira, horien inguruko eztabaida eta erabaki prozesua bizi izan dugulako, baina militante berrientzat batzuetan zailak izan ahal dira kokatzeko.

171. Duela lau urte, militante berriei zuzendutako prestakuntza berezia jarri genuen martxan eta orain hilabete batzuk ekimenari segida eman nahi izan diogu hauteskunde sindikaletan lortutako delegatu berriekin.

172. Baina onartu behar dugu ekimen honen lanketan, hasieran diseinatu genuen ibilbidearen hastapenetan gelditu garela, egoerak erabat baldintzatua.

173. Arazo hauek bideratzeko, koadro eskola batek zeregin handia izan lezake. Beraz, Prestakuntza Idazkaritzak landu beharreko prestakuntza plangintzaren barruan, egoera honi irtenbidea ematekotan, ideia hau jaso eta jorratu beharko luke.

174. Prestakuntzari dagokionez, aurrerapausoak egin ditugun arren (Ipar Hegoa protagonismo propioa irabazten hasia da), onartu behar dugu oraindik idazkaritza hau mugak izan eta izaten ari dela sindikatuak osotasunean dituen formazio beharrei erantzuteko.

175. Gaur formaziotzat hartzen duguna oso sakabanatuta eta sindikatuaren eguneroko interbentzioari oso lotuta dago. Lan Osasunak, Ingurumenak, Idazkaritza Tekniko Juridikoak, edota Ekonomikoak, ahaztu gabe Euskara eta Emakume Idazkaritzak, edo sektoretatik zein eskualdetatik sortzen diren dinamikak, besteaz beste, gauzatzen dute formazioa iraunkorki.

176. Une honetan koordinazio arazoa sortzen ari da beraien artean. Bakoitzak bere dinamika garatzen du irla bat balitz moduan, eta honek disfuntzio oso nabarmenak sortzen ditu gainontzeko egituren funtzionamendua planifikatzeko garaian.

177. Arazo honi irtenbidea emateko, idazkaritzaren protagonismoa areagotu behar dugu eta, beraz, aurrerantzean sindikatuak behar dituen formazio alderdi desberdinak idazkaritzak kudeatu beharko ditu.

178. Sindikatuko formazio premiei erantzuteko, sindikatuak prestakuntza plangintza diseinatu beharko du, Idazkaritzaren beraren garapena eta dimentsionamendua abiapuntutzat hartuta.

179. Baina, noski, formazioa ikastaroetan, gela batean jasotzen dena baino gehiago da: gure eguneroko dinamiketan ere aurkitzen dugu, batzordeetan, Nazio Biltzarrean, sektoreetako nazio komiteetan edo eskualdeko idazkaritzetan, esaterako. Beste funtzioen artean, egitura hauen papera oso interesantea da koadroen prestakuntzan ardura zehatz batzuei begira.

180. Beraz, koadro berrien formazioa Prestakuntza Idazkaritzaren edo abokatuen funtzioa ez ezik, gune horietan gauden militante guztion ardura ere bada.

181. Egindako hausnarketan oso nabarmen gelditzen da Prestakuntzak, orain arte definituak genituen beste idazkaritzen antzera, sindikatuan bete behar duen paperagatik erabat zeharkakoa izan behar dela.

3.4.3.-Lan osasuna

182. Azken urte hauetan lan osasuna garrantzia hartzen ari da lan munduan eta, horren ondorioz, sindikatuen interbentzioetan ere bai. Zoritxarrez, protagonismo hau ez dator guk nahiko genituzkeen arrazoiengatik, lan istripuengatik baizik.

183. Sindikatua, urte hauetako lanaren ondorioz, erreferente bihurtu da esparru honetan. Hala ere, istripuen salaketan dinamika iraunkorra burutu arren, enpresa mailan zein jendartean ematen diren erantzunak oso desorekatuak izaten ari direla esan behar dugu.

184. Beraz, azken hiruzpalau urteetatik hona, argi ikusten dugu aurrerapausoak egin behar ditugula: arazo hau, enpresan lantzeaz gain, jendartean erantzun erasokorragoaz uztartu behar dugu eta, horretarako egungo dinamikak, zoritxarrez, antzuak suertatzen ari dira.

185. Baina lan osasuna istripuen kontrako erantzun dinamika baino gehiago da. Lan osasuna egun lan munduan, enpresetan, gero eta pisu handiagoa hartzen ari den interbentzio sindikala da eta erabat lotua dago garatzen den ekintza sindikalarekin.

186. Hau dela eta, idazkaritza honek definizio berria behar du eta egun dituen zenbait funtzio berraztertu behar ditugu.

187. Momentu honetan nagusiki lau dira lantzen dituen ardatzak: aipatutako lan istripuen inguruko dinamika; prestakuntza (derrigorrezkoa zein beharrei zuzendutakoa); interbentzio instituzionala; eta, azkenik, aholkularitza. Hauekin batera, Konferentziaren dinamizazioaz ere arduratzen da.

188. Orain arte idazkaritza honen funtzioak eta eginkizunak, beste idazkaritzen moduan, oso bideratuak egon dira sektoreetatik zein eskualdeetatik ditugun gabezia edo beharrak betetzera.

189. Idazkaritzak fase honetan nagusiki bi funtzio zehatz zituen: akuiluarena, sindikatua lan munduan ematen ari den egoerari erantzun dinamikan kokatzeko; bestea, aholkularitza teknikoa ematea, enpresetan gure interbentzio sindikal integralaren euskarri gisa.

190. Lehenengoa bete egin duela esan dezakegu, baina bigarrean pentsatu eta diseinatutakoaren kontrako efektua lortu dugu. Hau da, enpresetan arazo hauen inguruko ekintza sindikala askotan sektoreetatik idazkaritzara pasa izan dira.

191. Errealitate honen aurrean bi aukera ditugu: Idazkaritza beste era batean diseinatu, bere interbentzioa sektoreetatik at gara dezan -gure eredu sindikalaren kaltetan-, edo lan osasunaren zati bat sektoreetan integratzen dugu, interbentzio integralaren eredia honela indarturik -gure ustez zuzena dena-.

3.4.4.-Zehar-lerroak

192. Lan munduan sindikatua berdintasunaren aldeko aldarrikapenetan zein dinamiketan aitzindaria izaten ari da. Gauza bera suertatzen ari da hizkuntza normalakuntzan. Zeharkako bi arlo hauetan sindikatuak ondo finkatuak ditu hurrengo urteetan zeintzuk diren gure erronkak eta arazoak non kokatzen diren.

193. Hala ere, oraindik asko gelditzen zaigu egiteke, bai sindikatuan, bai lan munduan, bai jendartean. Beraz hurrengo urteetan idazkaritza hauek paper garrantzitsua izan beharko dute.

194. Gazte Idazkaritzari dagokionez, errealitatea bestelakoa da. 6. Biltzar Nagusian egindako hausnarketak idazkaritza hau eraldatzera eraman gintuen, eta esan dezakegu sindikatuaren inguruan egiten genuen diagnostikoa eta apustua (gazteen integrazioa sindikatuko dinamika eta egituretan), neurri handi batean lortu dugula, baina idazkaritza bera ez dugu irautea lortu.

195. Beraz, aurrera begira Gazte Idazkaritza egituratzeko apustua bertan behera geratzen bada ere, honek ez du esan nahi sindikatuak bere egitura konfederaletatik gazteekiko diskurtso zein harremanak garatuko ez dituenik.

3.4.5.-Idazkaritza teknikoak: juridikoa eta ekonomikoa

196. Sindikatuan historikoki bi idazkaritza tekniko izan ditugu egituratuak: juridikoa eta ekonomikoa.

197. Idazkaritza hauek bi funtzio bete izan dituzte batez ere: prestakuntza eta aholkularitza.

198. Juridikoaren kasuan urteetan eredu berdintsuarekin jarraitu dugu, sindikatua eskualdeka antolaketak antolaketan zelan eragin dion kontuan hartu gabe.

199. Honekin batera, Idazkaritza Juridikoaren aholkularitzarentzat eskualdea interbentzio zein ekarpen gune natural bilakatu genuen. Honek Idazkaritza Juridikoaren bilakaera eta moldaketa ekarri du.

200. Idazkaritza Ekonomikoaren bilakaera desberdina izanik, ondorio edo egoera berdintsura eraman gaitu. Egun idazkaritza honetatik garatzen ditugun bi interbentzio esparruak (mikro eta makro), dinamika erabat desberdinetan daude kokatuak.

201. Lehenengoa, aholkularitzan erabat murgilduta, sektoreetako interbentzioaren laguntza inportantea da. Bigarrena, berriz, bi norabidetan aritzen da: dinamika konfederalen, zein sektoreetako jarduera nazionalen euskarri garrantzitsua eta sindikatuko militante guztientzako prestakuntza.

202. Urte hauetan bi idazkaritza hauek, azaldu ditugun arrazoiengatik, ez dute garapen organizatiborik izan. Egia da bi kasuetan lanketa berezitua eman zaiela, baina hau euren lan espezifikoen

arazo zehatzen inguruan egin da eta ez benetako antolakuntza premiei erantzuteko.

203. Horregatik, idazkaritza hauek ez diote zertan egitura izaerari eutsi, aipatu ditugun egoera bereziek sortzen duten koordinazio beharrak salbu.

204. Egituraketa honekin ez jarraitzea ez du esan nahi idazkaritzak desgertuko direnik edo zenbait funtzio bete behar ez dituztenik. Aurrerantzean, bi norabide-tan ikusten ditugu beren eginkizunak:

205. Instituzio politiko eta ekonomiko, zein erakunde sozial eta laboralen ekimenen jarraipena egin behar dute.

206. Eginkizun hauek, lehen aipatu dugun moduan, dinamika konfederal zein sektorialetarako euskarri inportantea dira hausnarketa eta interbentzioa definitzeko orduan, ahaztu gabe prestakuntza arloan betetzen duten papera.

207. Gogoeta honen segidan, beharrezkoa ikusten dugu Ekintza Sindikaleko Batzordeak, Idazkaritza Juridikoarekin batera, negoziazio kolektiboaren behotkia egituratzearen inguruko hausnarketa egitea.

208. Tresna honek oso paper garrantzitsua joka dezake etorkizunean, federazioekin zein sektoreekin batera, negoziazio kolektiboaren klabeak emateko orduan.

209. Idazkaritza ekonomikoko kideak Euskal Esparru Sozio-ekonomikoaren Batzordean integratuak egongo dira.

210. Prestakuntzan duten protagonismoari begira, argi dago idazkaritza hauetako militanteek lotura zuzena izan beharko luketela Prestakuntza Idazkaritzarekin.

211. Aholkularitza Juridikoari begira, azken urteetan hiriburuetan egiten ari garen lanketaren inguruko gogoeta egitea besterik ez zaigu geratzen. Sektoreei buruzko hausnarketan agertzen den planteamendua indartzeko asmoz landutako proposamena. Lanketa honek Aholkularitza Juridikoaren berdifinizioa eta garapena ekar dezake.

212. Horretarako lehen esan dugun moduan, egiten ari garen lanketaren ebaluazioa eta aurrera begirako diseinua egin beharko da.

3.4.6.-Komunikazioa

213. Informazio eta komunikazio teknologien mendean gaude. Azkeneko urteetan eta belaunaldi berriekin batera informazio tresnen iraultza etorri da. Informazioa kontsumitzeko eta ekoizteko orduan lehengo sistema zurrunetatik aldendu eta komunikazio-informazio sistema dinamiko eta azkarrak bilatzen dira.

214. Sindikatuan, ezinbestez, teknologia berrien aldeko apustua egin dugu. Hala ere, datozen urteetan haratago joan behar dugu eta, egoera berriei egokitzeko, jendearekin, afiliazioarekin eta militantziarekin komunikatzeko sistema arinak eta interaktiboak sortu beharko ditugu.

215. Ponentzia politiko sindikalean atal oso bat dedikatu diogu borroka moldeen inguruko hausnarketetara. Kapitulu horretan hitz egin dugu borroka ideologikoaren garrantziaz.

216. Baina, horretarako, esaten dena eta nola esaten den determinanteak dira. Mezuak eta irudiak LABen garatu nahi dugun sindikalgintza erasokorraren tresna osagarriak dira. Beraz, komunikazioa ezinbesteko tresna bilakatu zaigu gure koadro sindikal, zein euskal herriko langileriaren berramatze ideologikorako.

217. Azken urteetan, Komunikazio Idazkaritzaren barruan kokatuta dauden zenbait tresna edo arloren deskonexioa eman da eta dinamika independenteak sortu dira. Komunikazio Idazkaritza neurri handi batean propagandak sortzen dituen dinamikei lotua geratuz joan da.

218. Hurrengo urteetako apustueteriko bat Idazkaritzaren berregituraketa izango da. Aldagai hauek guztiak kontuan izanik, sindikatuak komunikazio plan integral oso berri bat diseinatu behar du.

3.4.7.-Finantza Batzordea

219. Sindikatuak jauzi handia egin du azpiegituretan (egoitzak, informatika, hornitzaileak...), hala nola egituretan (sektore, lurralde, batzorde, idazkaritzak...). Hau guztia aurrera eramateko liberatuak ere behar dira. Hortaz, gero eta premia gehiago izaten ditugu.

220. Azkeneko urteetan gestio hutsa egitera eraman gaitu egoerak. Ez gara gai izan kudeaketa planifikatzeko eta jarraipena egiteko. Begi bistan dago ezin dugula horrela jarraitu, sindikatuak bitartekoak jarri behar ditu batzorde honi bestelako dimentsioa emateko.

3.4.8.- Ingurumena

221. Azken urteetan, ingurumenari dagokionez, proiektio eta protagonismo nabarmena lortu dugu jendartean zein sindikatu barruan ere. Beste batzuen artean, errepide azpiegiturak, AHT, erraustegiak, Pasaiaiko kaia edo aldaketa klimatikoa izan dira landu ditugun gaiak.

222. Zoritxarrez, gure interbentzioa ez da gai horietan amaitzen. Arduradun politikoez ezarri nahi dizkiguten garapen ereduak eragin handia izaten dute gure kontsumoan, azpiegitura berrien diseinuan, produkzio sistemen antolaketan, e.a.

223. Dinamika hauen segimendua eta horien inguruan jorratu beharreko alternatibak sindikatuari gero eta dedikazio gehiago exijitzen diote. Beraz, ingurumenak hurrengo urteetan sindikatuaren interbentzio zein planifikazioan protagonismo handiagoa hartu beharko du.

3.5.-Interbentzio esparru espezifikoak: autonomoak, etorkinak, gaituak, pentsionistak, ekonomia soziala

224. Urteetan Biltzar Nagusietan erakutsi dugu geure asmoa arlo hauek bultzatzeko edo garatzeko. Hala ere, arlo hauen errealitateak oso ezberdinak dira.

225. Arlo hauek guztiek daukate eragina sindikatuko interbentzio esparru ezberdinetan. Izan ere, sektore guztiei zeharka eragiten dieten arloak dira. Beraz, argi dago sindikatuak mezua eta interbentzioa finkatu dituela bakoitzarentzat. Baina honek ez du esan nahi denek erabateko garapen organizatiboa izan beharko dutenik.

226. Beraz, argi dugu arlo hauetako langileak, oro har, eta zehatzago sindikatuko militante eta afiliatuak, norberaren sektorean kokatu beharko direla eta beren jardueraren inguruan horren arabera izan beharko dela.

227. Hala ere, uste dugu kolektibo hauen zenbait arazo zeharkakoak direla eta, hortaz, arazo horien inguruko hausnarketa eta interbentzioa planifikatzeko, aurreikusten dugu kolektibo hauen antolaketa edo koordinazio beharra.

4. Gure ereduaren egituraketa

4.1.-Organo konfederalak

4.1.1. Biltzar Nagusia

228. Sindikatuko organorik gorena, bertan sindikatuko ildo estrategiko nagusiak eztabaidatu eta onartzen dira.

229. Funtzioak:

- Sindikatuaren interbentziarako estrategia orokorra finkatu.
- Antolakuntza egitura onartu eta egokitu.
- Estatutuak onartu eta egokitu.
- Nazio Komitea hautatu.
- Berme Batzordea hautatu.

230. Osaketa:

- 500 kidek osatzen dute. Nazio Komiteko kideak Biltzar Nagusiaren kideak ere izango dira. Gainontzeko kideak eskualdeetako afiliatuen batzarretan aukeratuko dira.
- Eskualde bakoitzean hautatu beharreko ordezkari kopurua afiliazioaren arabera finkatuko da, aurreko urteko abenduko fakturazio datuen arabera.
- Hautaketa hau egiterakoan berdintasun irizpidea kontuan hartu behar da. Horretarako, eskualde bakoitzeko afiliazioaren proportzioak errespetatuko dira.

231. Euskaraz funtzionatuko du. Horretarako, sindikatuak behar diren bitartekoak aurreikusi eta prestatuko ditu.

232. Maiztasuna:

- Ohikoa: lau urtean behin.
- Ez ohikoa: estatutuetan onartuta ditugun prozedurak betetzen direnean.

4.1.2.-Nazio Biltzarra

233. Eztabaida eta erabaki organorik nagusia, Biltzar Nagusien arteko tartean.

234. Funtzioak:

- Biltzar Nagusien deialdiak egin eta araudiak onartu.
- Biltzar Nagusian hartutako ebazpenak bete daitezen zaindu.
- Biltzar Nagusian finkatutako ildoak sakondu eta garatu.
- Biltzar Nagusian landu edo finkatu ez diren ildo estrategikoak landu eta onartu.
- Sindikatuaren urteko interbentzio esparruak eta dinamikak finkatu eta ebaluatu.
- Sindikatuak dituen eta izan ditzakeen interbentzio esparru estrategikoak definitu eta ebaluatu.
- Nazioarteko erakundeei atxikimendua onartu.
- Kuoten aldaketa.
- Berme Batzordearen arautegia onartu.

Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

- Nazio Komiteko zein Exekutiboko kideen kopurua aldatu eta izendatu, ezohiko arrazoi edo antolakuntza beharrei erantzuteko.
- Nazio mailako greba orokorretarako deialdiak egin edo halako deialdiekin bat egin ala ez erabakiko du.
- Hartzen dituen erabakiak afiliazioari helarazi.
- Nazio Komiteko kideen aldaketak suertatzen direnean, kide berriak berretsiko ditu, Nazio Komiteak proposatuta.

235. Osaketa (150 kide):

- Nazio Komitea.
- Egituratu gabeko 8 ardura nazional. Nazio Biltzarrak hautatuko ditu Nazio Komitearen proposamenaz.
- Eskualdetatik 53 lagun.
- Sektoreetatik 53 lagun.

236. Hautaketa hau egiterakoan berdintasun irizpidea kontuan hartu behar da.

237. Euskaraz funtzionatuko du, sindikatuak horretarako behar diren bitartekoak aurreikusiko eta presatuko ditu.

4.1.3.-Nazio Komitea

238. Biltzar Nagusian lau urtetarako hautatzen den sindikatuaren zuzendaritza organoa.

239. Funtzioak:

- Biltzar Nagusian eta Nazio Biltzarrean erabakitako interbentzio ildoak praktikan jarriko ditu.
- Nazio Biltzarreko deialdiak egin eta dinamizatu egingo du.
- Nazio Biltzarrari Biltzar Nagusian landu edo finkatu ez diren ildo estrategikoak lantzeko eta onartzeko proposamena dio.
- Sindikatuaren esparru guztien lan ildoan plangintzak zehaztu, onartu eta ebaluatu.
- Bere interbentziorako beharrezkotzat jotzen diren batzorde edo egiturak sortuko ditu.
- Sindikatuaren izenean edozein erakundetan parte hartuko duten ordezkariak hautatuko ditu.
- Sindikatuko edozein kide kargugabetzea eta ordezkatzea erabaki dezake.
- Nazio Komiteko zein Komite Exekutiboko kideak kargugabetu.
- Nazio Biltzarrari hauen ordezkapena proposatuko dio.
- Federazioetako interbentzio arduradunak hautatuko ditu.
- Sektoreei beren arduradun nazionalen izendapena proposatuko die eta, beharrezkoa balitz, kargugabetuko ditu.
- Sindikatuaren interbentzio esparru propioen politiken jarraipena egingo du (politika sozialak, ekonomikoak, industrialak, e.a.).
- Egoera politiko, sozial zein sindikalari buruz gogoeta, hausnarketa eta ekarpenak egingo dizkio sindikatuko militantziari zein euskal jendarteari.
- Edozein auzitan sindikatua epaitegian aurkeztuko den ala ez erabakiko du.
- Batzordeen dinamiken jarraipena eta ebaluazioa egingo du.
- Sindikatuaren urteroko aurrekontua onartuko du.
- Nazio Biltzarrari kuotaren aldaketa proposatuko dio.
- Sindikatuko liberatuen soldatak onartuko ditu.
- Liberatuen barne araudiaren aldaketak erabakiko ditu.

240. Osaketa (36 kide):

- Komite Exekutiboa.
- 17 eskualdeetako idazkariak.
- Euskara Idazkaria.

- Emakume Idazkaria.
- Lan Osasun Idazkaria.
- Prestakuntza Idazkaria.
- Ingurumen Idazkaria.
- Gai Juridikoetarako Idazkaria.

241. Sindikatuaren berdintasun irizpideak kontutan hartuta, organo honetan emakumeak gutxienez %40 izango dira.

242. Euskaraz funtzionatuko du.

243. Maiztasuna:

- Gutxienez hiru astean behin elkartuko da.

4.1.4.-Komite Exekutiboa

244. Funtzioak:

- Nazio Komitea deitu eta dinamizatu.
- Nazio Komitean, Nazio Biltzarrean zein Biltzar Nagusian hartzen diren erabakiak bete daitezzen zaindu.
- Interbentzio ildoak eta sindikatuaren dinamikekin bat datozen iniziatibak Nazio Komiteari proposatu.
- Sindikatuaren interbentzio esparruan dauden eragile desberdinekin harremanak gestionatu.
- Eremu desberdinetan sindikatuak izan beharreko ordezkariaren ardura.
- Nazio Komiteari sindikatuko edozein kideren kargugabetzea eta bere ordezkapena proposatuko dio.
- Urteko aurrekontuak Nazio Komiteari onartzeko proposatuko dizkio eta honen jarraipena zein sindikatuaren ekonomiaren bilakaera aztertuko ditu.
- Bitartekoak jarri beharko ditu sindikatuko egiturekin komunikazio iraunkor eta zuzena bideratzeko.
- Egituretan sor daitezkeen arazoen jarraipena eta kudeaketa egingo du, egiturekin batera.
- Sindikatuaren izenean edozein erakundetan parte hartuko duen ordezkaria proposatuko dio Nazio Komiteari.
- Liberatu berrien kontratazioa onartu, arituko diren egiturekin kontrastatu eta onartua izan ondoren.

245. Osaketa:

- Idazkari Nagusia.
- Idazkari Nagusiaren Ondokoa.
- Komunikazioa Idazkaria.
- Zerbitzu Publikoetako Federazioko Idazkaria.
- Zerbitzu Pribatuetako Federazioko Idazkaria.
- Industria Federazioko Idazkaria.
- Politika Sozialetako Idazkaria.
- Politika Ekonomikoetako Idazkaria.
- Enplegu Politiketako Idazkaria.
- Nazioarteko Idazkaria.
- Zehar-lerroetako Idazkaria (euskara, berdintasuna, prestakuntza).
- Hedapenerako Idazkaria (hauteskunde sindikalak, afiliazioa, finantzak, azpiegiturak.).
- Antolakuntza Idazkaria.

246. Komite Exekutiboa 13 ardura konfederaletan osatuko dute. Hauekin batera, bi bokal izango dira, hauen berezitasuna dela eta. Bokal hauek Nafarroa eta Iparraldeari egokitu zaizkio eta desagertzeko helburuarekin sortzen dira. Bokalak Komite Exekutiboan hartuko dute parte, ardura konfederaletan dinamika nazionala egokitzen duten bitartean.

247. Bere funtzionamendua koordinatzeko eta Nazio Komitearekiko zein gainontzeko egiturekiko komunikazio dinamikoagoa burutzeko, idazkari bat izango du.

248. Organo hau parekidea izango da.

249. Euskaraz funtzionatuko du.

250. Maiztasuna:

- Astero.

4.2.-Lurralde egitura

4.2.1.-Eskualdeetako idazkaritzak

251. Funtzioak

- Nazio mailako interbentzio ildoak bere esparrura egokitu eta garatuko ditu.
- Nazio Komitetik sortzen diren informazio zein eztabaidak bideratuko ditu.
- Bere esparruko dinamika politiko, sozial zein sindikaletan parte hartuko du eta interbentzio ildoak diseinatu eta garatuko ditu.
- Lan istripuen kontrako erantzun dinamikak bultzatuko ditu.
- Sindikatuaren ordezkaritza izango da eskualdeko gune desberdinetan.
- Bere ardurapean dauden egiturak dinamizatuko ditu (Eskualdeko Kontseilua, delegatuen batzarrak, herri biltzarrak, sail sindikalak, afiliatuen batzarrak, e.a.).
- Gune hauetan sortzen diren ekarpenak, eztabaidak zein hausnarketak jasoko ditu.
- Herri biltzarrak zein sail sindikalak sustatuko ditu.
- Sindikatuaren hedapenaz arduratuko da (hauteskunde sindikalak eta afiliazioa).
- Prestakuntza Idazkaritzarekin batera, eskualdeko koadroen prestakuntza plana diseinatu eta garatuko du.
- Eskualdeko beharren arabera, Antolakuntza Idazkaritzarekin batera sektoreen mapa osatu eta garatuko du.
- Eskualdeko sektore komiteekin batera sektoreen interbentzioaren jarraipena egin eta parte hartuko du.
- Eskualdeko sektoreen garapenean parte hartuko du sektoreetako arduradunekin batera.
- Eskualdeko egoitzen funtzionamendu egokia bermatuko du.
- Eskualdeko aholkularitza antolatuko du.
- Hiriburuetako idazkariak herrialdeko ordezkariek eta bozeramaleak izango dira.
- Hiriburuetako idazkariak herrialdeetako kontseiluak dinamizatuko dituzte.
- Lan osasuna, berdintasuna, euskara, prestakuntza, hedapena, e.a. garatzen saiatuko da.

252. Osaketa

- Eskualdeko idazkaria.
- Eskualdeko sektoreetako arduradunak.
- Herri biltzarretako arduradunak.
- Aholkularitza juridikoa (hiriburuen kasuan zerbitzu publikoetako abokatuak ere bai)
- Propaganda.
- Eskualdeak ondorengo ardurak garatzen saiatu behar dira, Aukera dagoen neurrian, lan osasuna, berdintasuna, euskara, prestakuntza, hedapena, e.a.

253. Maiztasuna:

- Astero.

254. 17 eskualde izango dira:

- Ipar Euskal Herria
- Oarso-Bidasoa
- Donostialdea
- Tolosaldea
- Kosta Urola
- Debaldea
- Durangaldea
- Busturialdea-Lea Artibai
- Eskumaldea
- Hego Uribe-Arratia
- Bilbo
- Ezkerraldea-Meatzaldea-Enkarterriak
- Aiara
- Gasteiz-Lautada-Errioxa
- Sakana-Larraun
- Iruñaldea-Pirinioak
- Erdialde-Erribera

4.2.2.-Eskualdeetako kontseiluak

255. Funtzioak:

- Sindikatuak eskualdean garatuko dituen dinamikak eztabaidatuko ditu.
- Sindikatuan planteatzen diren hausnarketetan parte hartuko du.
- Eskualdeak Nazio Biltzarrean izango dituen ordezkariak hautatuko ditu.

256. Osaketa:

- Eskualdeko idazkaritza.
- Eskualdean ordezkatuak dauden sektore komiteak.
- Herri biltzarrak.
- Eskualde mailan egon daitezkeen gainontzeko liberatuak.

4.2.3.-Eskualdeetako delegatuen batzarrak

257. Sindikatuak une zein gai zehatzetan organo hau erabil dezake. Organo hau eskualdeko idazkaritzen dinamika garatzeko osagarria izango da.

258. Funtzioak:

- Delegatuen prestakuntzarako gunea.
- Sindikatuak eskualdean garatuko dituen dinamika zehatzen arabera bilduko da hauen berri emateko.
- Sindikatuan planteatzen diren hausnarketa zehatz batzuen arabera gune hau bilduko da gogoetak konpartitzeko.


259. Osaketa:

- Eskualdean dauden delegatu guztiak.

4.2.4.-Herri biltzarrak

260. Funtzioak:

- Organo honen bitartez, herrietako dinamika politiko, sozial zein sindikatuetan sindikatuak bere ikuspegia eta jarduera azalduko ditu.



- Sindikatuaren hedapenez arduratuko da eta afiliazio zein hauteskunde sindikaletako jarraipena egingo du.
- Herriko delegatuekiko zein afiliatuekiko komunikazioa landuko du.
- Herrian dauden eragile desberdinekin harremanak izango ditu.

261. Osaketa:

- Herriko sail sindikaletako ordezkariak.
- Parte hartu nahi duen edozein afiliatu.

4.2.5.-Herrialdeetako kontseiluak

262. Funtzioak:

- Herrialde mailako gaien gogoeta konpartitzeko organoa da.

263. Osaketa:

- Eskualdeetako idazkaritzak.

264. Dinamizatzailea herrialdeko hiriburuko idazkaria izango da.

4.3.-Sektorializazioa

4.3.1.-Diseinu sektoriala

265. Sektorializazioaren inguruan egiten genuen hausnarketaren segidan, honako proposamen hau egiten dugu.

266. Sindikatuan dauden sektoreak 3 federaziotan elkartuko ditugu:

- Industria Federazioa.
- Zerbitzu Pribatuetako Federazioa.
- Zerbitzu Publikoetako Federazioa.

4.3.2.-Federazioetako komiteak

267. Funtzioak:

- Sektoreetako egitura nazionalak dinamizatu.
- Sektoreen interbentzio ildoak planifikatu, sektoreetako nazio komiteekin edota exekutiboekin batera.

268. Osaketa:

- Federazioko idazkaria.
- Federazioko interbentziorako arduraduna.
- Sektoreetako arduradun nazionalak.
- Federazioaren berezitasunen arabera, osaketa hau handitu daiteke.

269. Maiztasuna:

- Astero.

4.3.3.-Sektoreetako nazio komiteak

270. Funtzioak:

- Sindikatuaren ildo konfederalak sektoreari egokitu.
- Politika sektorialak definitu eta landu, batzorde konfederalekin batera (sozio-ekonomikoa, ekintza sindikala).
- Sektoreko ekintza sindikala zein negoziazio kolektiboa garatu.
- Azpisektoreen interbentzio espezifikoen lanketa eta jarraipena.

- Eskualdeko egiturarekin batera, sail sindikalekin plangintzak burutu sektorearen egituraketa lantzeko.
- Lurralde egiturarekin batera, sindikatuaren hedapena diseinatu eta bultzatu.
- Zeharkako dinamikak sektorearen interbentzioan integratu.
- Lan osasunaren interbentzioa diseinatu eta bultzatu.
- Prestakuntza Idazkaritzarekin batera berezkoak izan daitezkeen formazio premiak diseinatu eta garatu.
- Dagokien esparruan sindikatuaren ordezkariak landuko dute.
- Sektoreak Nazio Biltzarrean izango dituen ordezkariak hautatu.
- Sektore zein azpisektoreetako delegatuen batzarrak dinamizatu.
- Sektoreko zuzendaritza organoen osaketa sektoreko delegatuen batzarrari proposatu, honek onartu dezan.
- Lan osasuna, berdintasuna, euskara, prestakuntza, hedapena, e.a. garatzen saiatuko da.

271. Osaketa

- Sektoreko arduradun nazionala.
- Sektoreko exekutiboko kideak.
- Eskualdeetako sektore arduradunak.
- Sektoreak ondorengo ardurak garatzen saiatu behar dira. Aukera dagoen neurrian, lan osasuna, berdintasuna, euskara, prestakuntza, hedapena, e.a.

4.3.4.-Sektoreetako exekutiboak

272. Funtzioak:

- Sektoreko ordezkariak eta harreman sindikalak kudeatuko ditu. Nazioarte mailakoak Nazioarteko Idazkariarekin batera.
- Sektoreko organo nazionalak dinamizatuko ditu.
- Sektoreko hauteskunde sindikalen zein afiliazioaren jarraipena egingo du.
- Sektoreko egitura garatuko du.
- Sektoreko ekintza sindikal zein negoziazio kolektiboaren jarraipena egingo du.
- Sektoreko politika sektorialen jarraipena egingo du.

273. Osaketa:

- Sektore bakoitzaren errealitatearen arabera konfiguratu da.

4.3.5.-Eskualdeetako sektore komiteak

274. Funtzioak

- Sektoreko dinamikak eskualdean garatuko ditu.
- Bere eskualdeko negoziazio kolektiboa zein gatazken jarraipena eta interbentzioa egingo du.
- Eskualdeko idazkaritzan parte hartuko du, bertan hartzen diren erabakiak gauzatzeko eta bere sektorearen egoeraren nondik norakoak ezagutarazteko.
- Bere sektoreari dagokion hedapena egingo du.
- Sail sindikalekiko interbentzio plana egin, garapen eta dinamizazioari batez ere erreparaturik.
- Eskualdeko kontseiluan parte hartuko du.
- Bere sektorean dauden delegatu zein afiliatuekiko komunikazio iraunkorra bermatuko du.

275. Osaketa:

- Eskualdeko sektoreko arduraduna.
- Eskualdean dauden sektoreko sail sindikal garrantzitsuenak.
- Era iraunkorrean parte hartu nahi duten delegatuak.

4.3.6.-Sail sindikalak

276. Funtzioak:

- Bere enpresan sindikatuaren ildoak gauzatu.
- Enpresako negoziazio kolektiboa prestatu eta garatu, egitura sektorialekin batera.
- Enpresak burutzen dituen dinamika desberdinen aurrean interbentzio propioa gauzatu.
- Sindikatuaren hedapena: hauteskunde zein afiliazioaren jarraipena.
- Enpresako afiliatuekiko komunikazio zuzena bermatu.
- Eskualdeko sektoreko komitean parte hartu.
- Enpresa komitean sindikatuak izan beharreko interbentzioa diseinatu eta jarraipena egin.
- Sail sindikaleko ordezkari edo ordezkariak izendatu, hauek gune hau dinamizatuko dute.

277. Osaketa

- Enpresako afiliatuak.

4.3.7.-Sektoreetako delegatuen batzarrak

278. Funtzioak:

- Sektoreak urtero jorratu beharreko ildoaren azterketa, definizioa eta balantzea egin beharko du.
- Sektoreko delegatuen batzar nazionalak, Nazio Komite Konfederalaren proposamenez, sektoreko arduradun nazionala berretsiko du.
- Sektoreko delegatuen batzar nazionalak, sektoreko nazio komitearen proposamenez, sektoreko zuzendaritza organoak (Nazio Komitea zein Exekutiboa), aukeratuko ditu.
- Sektorean hartzen diren erabakien transmititu eta kontrastatuko ditu eta ekarpenak jasoko ditu.
- Sektoreak bere interbentziorako estrategikoak izan daitezkeen hausnarketak egin eta egitura konfederaleri proposatuko dizkio.

279. Osaketa:

- Markoaren arabera (nazionala edo herrialdekoa), bere osaketa egokitu beharko da.
- Sektoreko delegatuen batzar nazionala gehienez 150 kidek osatuko dute.
- Federazioko idazkaria.
- Federazioko interbentzio arduraduna.
- Sektoreko arduradun nazionala.
- Sektoreko nazio komitea (nazionalak direnean).
- Eskualdeetako sektoreetako komiteak (herrialdekoetan zein nazionaletan).
- Sektorea osatzen duten gainontzeko delegatuak (markoari egokituta).

4.3.8.-Azpisektoreetako delegatuen batzarrak

280. Funtzioak:

- Azpisektoreak jorratu beharreko ildoaren azterketa, definizioa eta balantzea egin beharko du.
- Azpisektorean hartzen diren erabakien transmisioa eta kontrastea egin eta ekarpenak jasoko ditu.
- Azpisektoreak bere interbentziorako estrategikoak izan daitezkeen hausnarketak egin eta egitura sektorialeki zein konfederaleri proposatuko dizkio.

281. Osaketa:

- Federazioko idazkaria edota federazioko interbentzio arduraduna.
- Sektoreko arduradun nazionala.
- Azpisektorea osatzen duten delegatuak (markoari egokituta).

4.4.-Batzordeak

4.4.1.-Ekintza Sindikaleko Batzordea

282. Funtzioak:

- Nazio Komiteari zein Exekutiboari ekintza sindikal zein negoziazio kolektiboaren interbentziorako ildoak proposatuko dizkie.
- Ekintza sindikal zein negoziazio kolektiboaren jarraipena eta ebaluazioa egingo du eta bere hausnarketak Nazio Komiteari igorriko dizkio.
- Sektoreetako interbentzioaren jarraipena egingo du.
- Organo konfederalek onartutako kanpainen diseinua zein gauzapena egingo du, kasu batzuetan lurraldeko egiturekin batera.
- Gaien arabera (negoziazio kolektiboa, ekintza sindikala,...), sektoreka edo arloka, delegatuen batzarrak deituko ditu.
- Dagokion arlo instituzionaletan sindikatuaren ordezkaria izango da.

283. Osaketa:

- Enplegu Politiketako Idazkaria.
- Federazioetako idazkariak.
- Sektoreetako ardunadun nazionalak.
- Gai Juridikoetarako Idazkaria.
- Ipar Euskal Herriko ordezkaria.
- Lan Osasun Idazkaria.
- Euskara Idazkaria, une puntualetan.
- Emakume Idazkaria, une puntualetan.

284. Dinamizatzailea Enplegu Politiketako Idazkaria izango da.

285. Euskaraz funtzionatuko du.

4.4.2.-Euskal Esparru Sozio-ekonomikorako Batzordea

286. Funtzioak:

- Lan harremanetarako euskal esparrua eta euskal esparru sozio-ekonomikoaren garapena bultzatu.
- Politika sektorialen jarraipena egin.
- Azpiegiturak.

287. Osaketa:

- Politika Ekonomikoetako Idazkaria.
- Politika Sozialetako Idazkaria.
- Enplegu Politiketako Idazkaria.
- Federazioetako interbentzio arduradunak.
- Ingurumen Idazkaria.
- Zehar-lerroetako Idazkaria.

288. Euskaraz funtzionatuko du.

289. Dinamizatzailea Politika Ekonomikoetako Idazkaria izango da.

4.4.3.-Antolakuntza Batzordea

290. Funtzioak:

- Sindikatuaren garapen organizatiboaren (lurralde zein sektorialaren) diseinua, jarraipena eta garapena.

- Hauteskunde sindikalen planifikazioa eta jarraipena.
- Afiliazio politiken diseinua, jarraipena eta balorazioa.
- Sindikatuaren prestakuntzaren planen diseinua eta ebaluazioa, Prestakuntza Idazkaritzarekin batera.
- Antolakuntzaren interbentzio plana diseinatu eta organo konfederalei proposatu onartu dezaten.
- Lan metodoen inguruko hausnarketa eta dinamiken egokipena.
- Sindikatuak dituen plan estrategikoen jarraipena.

291. Osaketa:

- Eskualdeetako idazkariak.
- Sektoreetako arduradun nazionalak.
- Federazioetako interbentzio arduradunak.
- Zehar-lerroetako Idazkaria.
- Hedapenerako Idazkaria.
- Antolakuntza Idazkaria.
- Idazkari Nagusiaren Ondokoa.
- Gaien arabera beste ardua batzuek parte har dezakete (prestakuntza, lan osasuna, ingurumena, euskara, emakumea, e.a.).

292. Maiztasuna:

- Gutxienez, bi hilean behin.

293. Euskaraz funtzionatuko du.

294. Antolakuntza Idazkariak dinamizatuko du.

4.4.4.-Komunikazio Batzordea

295. Funtzioak:

- Sindikatuko irizpide komunikatiboak zehaztu eta landu.
- Sindikatuaren agenda komunikatiboa koordinatu.
- Sindikatuaren agerraldi publiko, kanpaina, ekitaldi, mobilizazio eta ekimenen karakterizazioa, diseinua eta gauzapena.
- Komunikazio arlo desberdinen arteko lotura eta koordinazioa bermatu.
- Sindikatuaren esparru desberdinetan egon daitezkeen behar komunikatiboen jarraipena egin eta sor daitezkeen disfuntzioak ekidin.
- Sindikatuaren irudi korporatiboa landu eta garatu.
- Sindikatuaren dokumentazio zentroa lantzea (Fundazioarekin batera).
- Afiliazioarekiko komunikazio bideak jorratu. (web, iraultzen, foroak, e.a.).

296. Osaketa:

- Komunikazio Idazkaria.
- Iraultzeneko Zuzendaria.
- Prentsa Arduraduna.
- Webgunearen arduraduna.
- Diseinu arduraduna.
- Argitalpen arduraduna.
- Propaganda arduraduna.

4.4.5.-Finantza Batzordea

297. Funtzioak:

- Sindikatuko ekonomia zein kontabilitatearen jarraipena.
- Sindikatuko aurrekontuak prestatuko ditu organo konfederalei aurkezteko, onartu ditzan.
- Aurrekoen bilakaeraren berri organo konfederalei emango die.



- Afiliazioaren gestioa.
- Sindikatuko azpiegituren (egoitza berrien gestioa, obrak, mantenua, e.a.), kudeatu.
- Giza baliabideen inguruan sindikatuan hartzen diren erabakiak (kontratazio berriak, bajak, jubilazioak, eszedentziak, amatasunak, azterketa medikuak, e.a.), aurrera eraman.
- Hornitzaileekiko harremanak eta segimendua.
- Instituzioekin harremanak (dirulaguntzak, e.a.).

298. Osaketa

- Hedapenerako Idazkaria.
- Kontabilitateko Arduraduna.
- Gestio Arduraduna.
- Pertsonalaren Kudeaketaren Arduraduna.
- Afiliazio Arduraduna.

4.4.6.-Berme Batzordea

299. Funtzioak:

- Sindikatuko organo nagusien erabakien errespetarazten duen egitura.
- Sindikatuak hartzen dituen erabakien inguruko interpretazioa egiten du.
- Afiliatuen arteko liskarretan, eta diziplina gaietan parte hartzen du.
- Prozedura hau martxan jarriko da egitura batek zein afiliatu batek edo batzuek eskatuta.

300. Osaketa:

- Batzordeko arduradunarekin batera beste bost kide eta bi ordezeko osatuko dute. Hauetatik gehienez bi Nazio Komite kideak izango dira.

301. Batzordeko Arduradunak dinamizatuko du, horretarako txostenak eta behar duen informazio bilduko ditu.

4.5.-Idazkaritzak

4.5.1.-Prestakuntza Idazkaritza

302. Funtzioak:

- Instituzioekin harremanak (Arlo instituzionaletatik, idazkaritza honi eragiten dioten gunekiko jarraipena eta gestioa).
- Sindikatuko koadroen prestakuntza plana diseinatu eta garatu, bertan koadroen eskolaren diseinua eta garapena eginez.
- Sindikatuko artxibo historikoaren diseinu eta gestioa.
- Legeen jarraipena egitea.
- Sindikatuko dinamiken garapenerako beharrezkoak diren lege, arau zein erreformen azterketa egin.
- Lan Osasun Idazkaritzarekin batera eta lurraldeko egitura edo egitura sektorialarekin koordinatuta lan osasunaren delegatuen prestakuntza pres-tatu eta garatu.
- Informe ekonomiko zein sozio-laboralak landuko ditu.
- Administrazio desberdinetako aurrekontuen analisia egingo du.
- Euskara zein Emakumearen Batzordetik sortzen diren prestakuntzaren beharrak kudeatu.
- Sindikatuaren prestakuntza egutegia kudeatuko du.

303. Osaketa:

- Zehar-lerroetako Idazkaria.
- Prestakuntzako Idazkaria.
- Koadroen Eskolaren Arduraduna.
- Gaien arabera batzorde honekin koordinatuko da Idazkari Juridikoa, Idazkari Ekonomikoa, Euskara Idazkaria, Emakume Idazkaria eta Lan Osasunaren Idazkaria.

4.5.2.-Lan Osasun Idazkaritza

304. Funtzioak:

- Lan osasunera bideratutako irizpideak, ekintza sindikal eta negoziazio kolektiboari dagokienez, landu eta proposatu.
- Federazio zein sektoreetako arduradunekin planifikatuko dituzte dinamika hauek.
- Lan istripuei erantzuteko jarduerak definitu eta jarraipena egingo diete.
- Enpresetan burutzen diren dinamikak ezagutu eta jarraipena egingo diete.
- Sindikatuko kideen lan osasun gaien inguruko irizpideak Antolakuntza Batzordeari planteatuko dizkiote.
- Arlo honetako gune instituzionalen jarraipena eta gestioa (Osalan, Nafarroako Lan Osasuneko Institutua...).
- Prestakuntzarekin batera, lan osasunaren inguruko formazioa kudeatuko du.

305. Osaketa:

- Enplegu Politiketako Idazkaria.
- Lan Osasun Idazkaria.
- Herrialdeetako lan osasun arduradunak.
- Interbentzio esparru hau egitura desberdinetan lantzen eta dinamizatzen ari diren kideak.

306. Lan Osasun Idazkariak dinamizatuko du.

307. Maiztasuna:

- Hiru astean behin.

4.5.3.-Nazioarteko Idazkaritza

308. Funtzioak:

- Sindikatuaren nazioarteko politika zein harremanak kudeatuko ditu.
- Euskal Herritik kanpo dauden organismoetan sindikatu ordezkatuko du.
- Sektoreetan sor daitezkeen nazioarteko harremanen jarraipena eta kudeaketa egingo du, sektoreko arduradunarekin batera.
- Munduko Federazio Sindikaleko ordezkaria izango da.
- Sindikatuen Nazioarteko Batasunaren (UISen) jarraipena egingo du.
- EUROFen dinamiketan parte hartuko du.
- Estaturik Gabeko Sindikatuen Intersindikalean dinamikak bultzatuko ditu.

309. Osaketa:

- Nazioarteko Idazkaria.
- Jarduera edo gaien arabera, sektoreetako arduradun nazionalak zein batzordeetako arduradunak.

4.5.4.-Ingurumen Idazkaritza

310. Funtzioak:

- Ingurumenari eragiten dioten proiektuak ezagutu eta organo konfederalei irizpideak proposatu.
- Sindikatuak hauekiko hartzen duen jarrera garatu.

- Proiektu hauen inguruan jendartean sortzen diren dinamiketan parte hartu.
- Lan munduan ingurumenari eragiten dioten jardueren jarraipena egin eta, honen arabera, dinamikak bultzatu.
- Lan Osasun Idazkaritzarekin koordinatuko da gaiaren arabera.
- Azpiegituren jarraipena egingo du.

4.5.5.-Emakume Idazkaritza

311. Funtzioak:

- Berdintasun plana (sindikatu barruan zein sindikatuaren interbentzio esparruetan) diseinatu eta gauzatu.
- Aukera berdintasunaren inguruan esparru desberdinetan sortzen diren inizatiba edo dinamiketan parte hartu, jarraitu eta gestionatu.
- Enpresetan egon daitezkeen jarrera sexisten jarraipena eta gestioa egin.
- Sindikatuan gertatzen diren jazarpen egoerak konpontzeko parte hartu, egituraketarekin batera.
- Oro har, lan munduan emakumeen integrazioaren inguruan sortzen diren dinamiken diagnostikoa egin eta bertan parte hartu.

312. Osaketa:

- Zehar-lerroetako Idazkaria.
- Emakume Idazkaria.
- Arduradun teknikoa.
- Antolakuntza Idazkaria.
- Herrialdetan egon daitezkeen dinamizatzailleak.

4.5.6.-Euskara Idazkaritza

313. Funtzioak:

- EUSLAB planaren bi esparruak (SINEUS eta LANEUS), diseinatu eta garatu.
- Euskararen inguruan esparru desberdinetan sortzen diren inizatiba edo dinamiken jarraipena, parte hartzea eta gestioa.

314. Osaketa:

- Zehar-lerroetako Idazkaria.
- Euskara Idazkaria.
- Arduradun teknikoa.
- Antolakuntza Idazkaria.
- Herrialdetan egon daitezkeen dinamizatzailleak.

4.6-Kabinetek

4.6.1.-Kabinete Juridikoa

315. Funtzioak:

- Lan Harremanetarako Kontseiluko kidea izango da.
- Gune instituzional honetara sindikatuaren irizpideak eramango ditu.
- Ekintza Sindikaleko Batzordean parte hartuko du.
- Legeen, erreforma zein sententzien jarraipena eta hausnarketa egingo du.
- Prestakuntzarekin batera, militante berrien formazioaz arduratuko da.
- Negoziazio Kolektiboaren Behatokiaren arduraduna izango da.

4.6.2.-Kabinete Ekonomikoa

316. Funtzioak:

- Kontseilu Ekonomiko eta Sozialeko kidea izango da.
- Bestelako erakunde sozio-ekonomikoetan parte hartuko du.
- BGAE (EPSV) pribatu zein publikoetako egituretan parte hartuko du eta sindikatuaren irizpideak eramango ditu.
- Erakunde instituzionaletako aurrekontuen inguruko hausnarketa eta jarraipena egingo du.
- Prestakuntzarekin batera, militante berrien formazioaz arduratuko da.
- Nazio Komiteari irizpide makroekonomikoak proposatuko dizkio.

4.7.-Arloak

4.7.1.-Pentsionista Arloa

317. Arlo honen bitartez, sindikatuak kolektibo honetan dauden dinamika zein arazoetan parte hartzea bilatzen du.

318. Maiztasuna:

- Arlo hau egitura iraunkorra izango da.

4.7.2.-"Gaituak" Arloa (urritasunak dituzten pertsonak)

319. Ez dugu egitura iraunkor eta finko baten beharra ikusten. Beraz, ez dugu planteatzen arlo honetako afiliatuak egituratzea (hori sektore bakoitzak egin beharko du). Hala ere, arloak langile hauen arazo orokorren irakurketa eta gogoeta egiteko balio beharko du.

320. Ekintza Sindikaleko Batzorde, sektoreetako nazio komite eta Lan Osasun Idazkaritzaren osagarria izango da.

321. Maiztasuna:

- Arlo hau ez da iraunkorra izango. Beharren arabera funtzionatuko du.

4.7.3.-Ekonomia sozialerako arloa

322. Biltzar Nagusi desberdinetako hausnarketetan beti agertzen da arlo honekiko kezka. Urteetan, zorte gehiago edo gutxiagorekin, saiatu gara sindikatuaren interbentzio ildo bat garatzen kooperatiba ereduaren inguruan eta, aldi berean, bertako langileentzat.

323. Lanketa horren ondorioz, sindikatua erreferente bilakatu da langile kolektibo batentzat, baina eredu kooperatiboaren berezitasunak ez du errazten dinamika sindikala ezartzea eta dinamizatzea.

324. Beraz, erronkak bere horretan dirau. Azken hilabeteetako lanketari segida eman behar diogu eta etorkizunean arlo honek izango duen egituraketa garatzen jarraitu.

Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an • Barakaldoko BECen

